



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

---

**ATZERRITARREN EZOHIKO  
ERREGULARIZAZIO-PROZEDURAK: KONTZEPTUA,  
ERAENTZA JURIDIKOA ETA ESPERIENTZIA  
PRAKTIKOAK**

---

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**ZUZENBIDE FAKULTATEA, BIZKAIKO ATALA  
ZUZENBIDEKO GRADUA  
2021-2022 IKASTURTEA**

Lanaren egilea: **ITSASO PALACIOS BELZA**  
Lanaren zuzendaria: **IKER BARBERO GONZÁLEZ**

Entrega data: 2022ko ekainaren 17a

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>2. IMMIGRAZIO IRREGULARRA ESPAINIAN</b>	<b>9</b>
<b>3. IMMIGRAZIO IRREGULARRAREN INGURUKO GAUR EGUNGO ARAUKETA</b>	<b>12</b>
<b>3.1. Nazioarteko araudia eta jurisprudentzia</b>	<b>13</b>
<b>3.2. Espainiako araudia eta jurisprudentzia</b>	<b>16</b>
3.1.2. Ohiko erregularizazio-prozedurak arraigo edo sustraitze kontzeptuan oinarrituta	17
3.2.2. Ezohiko erregularizazio-prozedurak: oinarri juridikoa	24
<b>4. EZOHIKO ERREGULARIZAZIO-PROZESUAK NAZIOARTEKO MAILAN ETA ESPAINIAN</b>	<b>25</b>
<b>4.1. Nazioarteko esparruko ezohiko erregularizazio-prozedurak</b>	<b>25</b>
<b>4.2. Europar Batasuneko ezohiko erregularizazio-prozesuak</b>	<b>30</b>
<b>4.3. Espainiako aurreko ezohiko erregularizazio-prozesuak</b>	<b>32</b>
<b>4.4. 2022ko #RegularizaciónYa herri-ekimen legegilea</b>	<b>37</b>
<b>5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK</b>	<b>43</b>
<b>7. BIBLIOGRAFIA</b>	<b>45</b>

## TAULEN ETA GRAFIKEN AURKIBIDEA

<b>Taula I.</b> Hautatutako herrialde eta eskualdeetako migratzaile irregularren populazioen zenbatespenak	<b>10</b>
<b>Grafika I.</b> Irregularitasunaren bilakaera jatorriaren arabera	<b>11</b>
<b>Grafika II.</b> Langile etorkinen sektore-banaketa	<b>12</b>
<b>Grafika III.</b> Espainiako historiako erregularizazioak	<b>32</b>

## **LARURDURAK**

**Adib.** Adibidez

**AE** Autonomia Erkidegoa

**Art.** Artikulua

**AG** Auzitegi Gorena

**BJKN** Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

**EB** Europar Batasuna

**EBJA** Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

**EBK** Europar Batasuneko Kontseilua

**ED** Errege Dekretua

**EK** Espainiako Konstituzioa

**GS** Gizarte Segurantza

**LO** Lege Organikoa

**MNE** Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea

**NBE** Nazio Batuen Erakundea

**OJ** Oinarri juridikoa

**orr.** orrialdea

## 1. SARRERA

Erregularizazioa Estatuak herrialdean bizi diren atzerritar irregularrari ematen dien erantzun politikoa da, zeinari esker herrialdean bizi diren migratzaileek beren egoera egonkortu dezakete. Horrela, lan-esplotazioa jasateko aukerak murriztearekin batera, zerga-bilketa eta Estatuaren Gizarte-Segurantzako ekarpenak handitu, lan-merkatuari eta migrazio irregularrari buruzko datu zehatzen eskuragarritasuna hobetu eta ezkutuko ekonomia ahultzen da<sup>1</sup>.

Beraz, erregularizazioaren bitartez gauza bat esparru jakin batera egokitzen da, lege, arau edo erregela batek ezarritakoarekin bat etortzea lortuz. Erregularizazio prozesu honen ondorioz irregularra dena erregularra bilakatzen da, esparru ezberdinetan aplikatu daitekeena; hala nola, enpresa-arloan, ekonomian, katastroan eta azkenik, pertsonen arloan<sup>2</sup>. Migrazioari dagokionez, modu irregular batean aurkitzen den pertsona estatuan indarrean dagoen araudiari egokitzea ahalbidetzen du erregularizazioak, pertsona irregularra erregularra bilakatuz. Horregatik, erregularizazioaren araubidea eta prozesua aztertzen hasi aurretik, beharrezkoa da aipatutako bi egoera horiek definitzea eta ulertzea.

Irregularitasuna ordenamendutik kanpo egotearen egoera izango litzateke. Gizartean sinonimo gisa paperik gabeko etorkin edo gazteleraz “*sin papeles*” ezagututako kontzeptua erabiltzen da, legez bizitzeko eta lan egiteko baimenik ez duen atzerritarari aplikatzen zaiona. Dena den, ez dago migrazio irregularra definitzen duen definizio unibertsalik. Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak jatorrizko herrialdeetako, trantsiziozko edo harrerako herrialdeetako arauetatik kanpo mugitzen diren pertsonen mugimendu gisa definitzen du, egoera irregularrean dagoen atzerritar bat egoera ezberdinetan egon daitekeelarik<sup>3</sup>. Nagusiki, DÜVELL-ek adierazten duen moduan<sup>4</sup>, migrazio irregularra eraikuntza legala eta politikoa da, eta horrek esan nahi du irregularra dena politikak eta legeak definitzen duela, politikoki deseraikia izateko

---

<sup>1</sup> División y Gestión de Inmigración de Fronteras de la OIM: [Regularización](#), 1 orr., 2020 (azken kontsulta: 04/2022).

<sup>2</sup> Julian Pérez Portok [definición.de orrialderan](#) hurrengo moduan definitzen du erregularizazioa. (azken kontsulta: 04/2022).

<sup>3</sup> MNE: [Términos Fundamentales sobre Migración](#), 2021 (azken kontsulta: 04/2022).

<sup>4</sup> DÜVELL, Franck: *Clandestine migration in Europe*, SAGE, 2008, 10. orr.

aukera egonez. Izan ere, migrazio-estatusa zehazten duten best alderdi daude: irteera, sarrera, bizilekua, enplegua eta jaiotza. Alderdi bakoitza erregularra edo irregularra izan daiteke, eta hainbat konbinazio egin daitezke.

Alde batetik, pertsona batek estatu nazional baten muga irregularki eta baimenik gabe zeharkatu dezake, lanean dagoena edo ez. Beste aldetik, gerta daiteke herrialde jakin batean aldizka egon den pertsona baimenak ezarritako denbora-muga baino lehen herrialdetik ez ateratzea, honetan denbora gehiago geratuz (lanean edo ez). Beste egoera bat aldizka herrialde jakin batean dagoen pertsonak bisatu-arauak urratuz enplegu bat onartzea izango litzateke, bere migrazio-estatusa arriskuan jarriz. Edo pertsona bat guraso etorkin irregularrengandik jaiotzen da, eta etorkin irregular bihurtzen da jaiotzagatik, nazioarteko muga inoiz zeharkatu izan gabe <sup>5</sup>.

Horregatik, irregulartasuna ez da bakarrik estatuan modu irregularrean sartzearen edo estatutik irtetearen ondorioa, baizik eta herrialdearen baitan egonda eman daitekeen aldaketa bat; dokumentuak izatetik dokumenturik gabe egotera edo alderantziz. Hori gertatuko litzateke, adib., bere asilo-eskaerari erantzuteko zain zegoen bitartean erregulartasunez herrialdean bizi izan den eta bertan bizitzen jarraitzen duen migratzailearen kasuan, nahiz eta eskaera ukatu egin dioten. Dena den, ulertu beharra dago irregulartasuna pertsonak une jakin batean edo denbora-tarte jakin batean duen egoera administratiboari dagokiola, eta ez, ordea, pertsona berari. Ondorioz, esan dugun moduan, migratzaileak irregulartasunetik irten edo sar daitezke legeen eta politiken aldaketekin<sup>6</sup>.

Gainera, irregularki Espainiako estatuan bizitzen den atzerritarrak erroldatzeko aukera du. Izan ere, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak eta toki-araubidean indarrean dagoen legediak atzerritarrei (erregularrak edo irregularrak) de facto bizi diren udalerrian erroldatzera baimentzen eta behartzen ditu. Konkretuki, Toki Araubidearen Oinarriaren 4/1996 Legeak, urtarrilaren 10ekoa, betebeharrak hau aurreikusten du 15. artikuluan<sup>7</sup>.

---

<sup>5</sup> Ibidem.

<sup>6</sup> Portal de Datos sobre Migración: [Migración irregular](#), 2020 (azken kontsulta: 04/2022).

<sup>7</sup> Urtarrilaren 10eko Toki Araubidearen Oinarriaren 4/1996 Legeko 15. art: *“Toda persona que viva en España está obligada a inscribirse en el Padrón del municipio en el que resida habitualmente. Quien viva en varios municipios deberá inscribirse únicamente en el que habite durante más tiempo al año (...)”*.

Errefuxiatuei laguntzeko Espainiako Batzordearen estatuko koordinatzaileak, FAVIERESEK<sup>8</sup>, azaltzen duen moduan, erroldatzea gaur egun oinarrizko eskubideen onuraduna izateko bide nagusia da, gizarte-eskubide garrantzitsuenen onuradun izateko eta inklusioa errazteko hain zuzen ere. Erroldatzeak beste zerbitzu batzuetara sartzeko aukera ematen dio migratzaileari, hala nola, osasun-laguntzara edo eskolatzera, udalerrian bizi diren beste espainiarrek duten baldintza berdinetan<sup>9</sup>.

Adierazitako onuretako batzuk emateaz gain, errolda Espainian emandako denbora frogatzeko frogagiri nagusietako bat ere bada. Jakin beharra dago duela urte batzuetatik hona, Europar Batasunetik kanpoko atzerritar guztiek, bizileku iraunkorrik ez dutenek, erregistro hori bi urtean behin berritu behar dutela; bestela, baja ematen zaio inskripzioari<sup>10</sup>.

Azaldutako irregularitateak hainbat ondorio ditu pertsonari dagokionez. Lehenik, ulertu beharra dago Giza Eskubideen aldeko Amerika arteko Batzordearen ustez, irregularitasun administrazio-egoerak ez duela aldatzen Estatuak gizabanakoen hainbat oinarrizko eskubide errespetatzeko duen betebeharra. Ildo horretan, aipatutako Batzordeak gogorazi duen moduan, pertsona baten migrazio-kalitatea ezin da inola ere justifikazio bat izan pertsona horri bere giza eskubideez gozatzeko eta baliatzeko duen eskubidea murrizteko, lan-eskubideez baliatzeko adib.. Horrenbestez, Estatuak behar diren legegintza- edo neurri politiko guztiak hartu behar ditu, nazioarteko erakundeek ezartzen dioten betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko. Kasu honetan izaera positiboko neurriez ari gara, administrazio-egoera irregularrean dagoen etorkinari bere eskubideen erabateko gozamina eragozten dioten oztopoak kentzeko<sup>11</sup>.

Dena den, egoera administratibo irregularrean egoteak ondorio negatiboak dakartza egoera honetan aurkitzen den pertsonarentzat. Besteak beste, lan egiteko baimenik ez izatearen ondorioz, herrialdeko ekonomia ezkutuaren eragile nagusiak dira, lan egin

---

<sup>8</sup>FAVIERES, Paloma, FANJUL, Gonzalo, LÓPEZ SALA, Ana: [Análisis de los Procesos de Regularización en España](#), Universidad de Comillas, 2021

<sup>9</sup>FUNDACIÓN SERGI: [Derechos de las personas en situación irregular](#), *migrar.org* 2 orr. (azken kontsulta: 04/2022)

<sup>10</sup> Ibidem.

<sup>11</sup> PÉREZ GONZÁLEZ, Carmen: Migraciones Irregulares y Derecho Internacional.. Gestión de los flujos migratorios, devolución de extranjeros en situación administrativa irregular y Derecho Internacional de los Derechos Humanos, 2012, 8 orr.

ahal izateko abusuzko lan-baldintzak jasotzea jasanez (soldata baxua, abusuzko lanorduak, etab.). Modu irregularrean lan egitearen beste ondorioa Estatuak bere jarduera ekonomikotik eratorritako diru-sarrera esanguratsuak jasotzeari uzten diola izango litzateke. Izan ere, irregularki bizi diren atzeritarrek ez dute GSn altan emateko eskubiderik, eta hortaz, kotizatze beharrik ezta langabezia moduko prestaziorik jasotzeko eskubiderik<sup>12</sup>. Immigrazio irregularraren karga fiskalari dagokionez, urteko batez besteko kostua 2000 euro ingurukoa dela azaltzen du FANJUL ikertzaileak<sup>13</sup>. Hauen egoera erregularizatuko balitz, etorkinek beren betebeharrak eta eskubideekin lan-merkatuan integratzeko eta zuzeneko zerga-ekarpenak egiteko aukera izanez, GSren bidez etorkin bakoitzeko 3.250 euro irabaziko luke estatuak; urtean pertsona bakoitzeko 5.000 eurotik gorako etekina izanez.

Bestetik, atzeritarrek gizarte-zerbitzuei sarbidea izateko aukerak murrizten zaizkio bizitzeko baimena ez izatearen ondorioz araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen ez dituztelako, gizartean sozialki integratzeko prozesua zailtzearekin batera. Gainera, egoera erregularrean dauden gainerako etorkinek eta atzeritarrek baino diskriminazio-maila handiagoa jasan dezakete, gizartetik salbuetsita geratzea erraztuz<sup>14</sup>. Horrez gain, irregularitateak immigrantearen kanporaketa suposatuz dezake, baina bakarrik inguruabar astungarriak ematen diren kasuetan, aurrerago aztertuko den EBJAko Jurisprudentzia berriak azaltzen duen moduan.

Irregularitatearen ondorioak ikusita eta erregularizazioaren abantailak azalduta, migranteen egoera administratiboa aldatzen duen mekanismo juridikoaren eraginkortasuna eta onura nabariak izan beharko lirateke Espainia zein nazioarteko mailan, hurrengo lanean azalduko den moduan. Dena den, nabarmena da indarrean dagoen prozedurak zenbait akats dituela lege-antolamenduari begira, batez ere erregularizazio-prozesuetan lege azpiko eta erregelamendu azpiko arauen gehiegizko garrantziak eragindakoa. Honek ondorio kaltegarriak izan ditzake prozeduraren segurtasun juridikoan, arau batek besteari kontra egiten badio nahasmena sor baitaiteke bai baimena emateko ardura duten agintariei, bai baimena eskatzen duen pertsonari.

---

<sup>12</sup> Ortega autora zitatu, PHITTY GOMEZ, Josephine: La Inmigración Irregular (a través de las pateras y cayucos), *Universidad de La Laguna*, 2016, 12. orr.

<sup>13</sup> FAVIERES, Paloma, FANJUL, Gonzalo, LÓPEZ SALA, Ana: *Análisis de los Procesos...* zit., 2021

<sup>14</sup> *Ibidem*.



Lan honen helburu nagusia erregularizazio-prozesuak bere osotasunean aztertzea da. Hau da, hauen araubidea, jurisprudenzia, bilakaera eta erregularizazio modu ezberdinen inguruan sortu daitezkeen gatazkak azaldu eta konpontzen saiatzea. Honekin batera, lanak erregularizazioaren onuren kontzientzia zabaltzeko helburua du, prozesuaren onura jasotzen duen gizabanakoari zein estatuaren politika eta ekonomiari dakarzkien onurak erakutsiz.

Helburu hau lortzeko, lanean metologia kuantitatiboaz eta kualitatiboaz baliatu da. Izan ere, Espainiako immigrazio irregularraren datuak eta erregularizazioen datu estadistikoak erabili dira informazio objektiboa eta fidagarria eskaintzeko. Datu kualitatiboak dagokionez, Espainiako zein nazioarteko araudia eta jurisprudenzia irakurtzearekin batera, web orrialde akademikoetan adierazten den informazio eta autore ezberdinen doktrinak erabili dira lana osatzeko.

Horretarako, lehenik eta behin Espainiako immigrazio irregularraren datuak eta estadistikak erakutsiko dira, datu hauek lortzeko dauden zailtasunak eta konponbidea azalduz. Araubideari buruz hitz egingo da, Espainia zein nazioarteko mailakoa, Europar Batasuneko jurisprudenziari erreferentzia eginez; Zaizoune eta C-568/19 auziak bereziki. Atal honen baitan ohiko eta ezohiko erregularizazio-prozesuen ezberdintasuna landuko da, erregularizazio bide bakoitza modu laburrean azalduz eta Gobernuak instrukzioen garrantzia erakutsiz. Ondoren, Espainiako estatuan egon diren erregularizazio-prozesuak aztertzearekin batera, EBn eta nazioarteko beste herrialdeetan aurrera eramane diren prozesu ezberdinak aztertzen dira, gaur egun RegularizaciónYa mugimenduak martxan jarri duen erregularizazio proposamenarekin amaituz. Azkenik, lanaren ondorioen baitan proposamen bat burutuko da, prozesu honen funtzionamendua eta antolamendua hobetzeko asmoz.

## 2. IMMIGRAZIO IRREGULARRA ESPAINIAN

Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak 2018. urtean burututako txostenak erakusten du atzerritar irregularrak gehien dituzten 20 herrialdeen artean kokatzen dela Espainia<sup>15</sup>, jarraian txertatuko den taulan ikus daitekeen moduan (Taula I)

*Taula I: Hautatutako herrialde eta eskualdeetako migratzaile irregularraren populazioen zenbatespenak*

País/región	Año	Población estimada
Australia	2011	58.400
Unión Europea	2008	1,9-3,8 millones
	2008	8 millones
Alemania	2014	180.000-520.000
Grecia	2011	390.000
Israel	2015	150.000
Italia	2008	279.000-461.000
Federación de Rusia*	2011	5-6 millones
Sudáfrica	2010	3-6 millones
España	2008	354.000
Reino Unido	2007	417.000-863.000
Estados Unidos de América	2014	11,1 millones
	2016	11,3 millones

*Iturria: Organización Internacional para las Migraciones, 2018*

Dena den, garrantzitsua da ulertzea migrazio irregularrari buruz dauden datuak baliospenekoak direla. LÓPEZ-SALA soziologia doktoreak azaltzen duen moduan<sup>16</sup>, 2000. urtera arte Espainian zeuden migrante irregularrak kopuruari buruzko datuak erregularizazio prozesuetatik ondorioztatzen zirenak ziren. Kalkulu hau ez zen fidagarria, migrante guztiek ez baitzuten erregularizazio prozesuan sartzeko beharrezko baldintzak betetzen.

2000. urtean prozedura hau malgutu eta handitzen da, gaur egun ezagutzen dugun errolda kontzeptua ordenamenduan sartzeagatik. Izan ere, errolda espainiar eta migrante irregularrak zein irregularrak sarbidea duten erregistro sistema bilakatzen da, erregistro hau migrazio irregularrari buruzko datu objektiboak eskaini egiten dituelarik. Dena den,


<sup>15</sup> MNE: Informe Sobre las Migraciones en el Mundo 2018, 23. orr.

<sup>16</sup> FAVIERES, Paloma, FANJUL, Gonzalo, LÓPEZ SALA, Ana: Análisis de los Procesos...zit., 2021

denborarekin baliospena burutzeko metodoak hobetuz joan dira, batez ere zeharkako-  
edo hondar-metodoaren bitartez; gazteleraz “*método indirecto*” edo “*método residual*”  
izenarekin ezagutzen dena. Metodo honek hurrengo ezartzen du: migrante irregularren  
kopurua erroldan eta egoitza-txartela duten pertsonen arteko aldea dela<sup>17</sup>. Gero,  
zeharkako sistema honek hainbat aldaketa jasan ditu CEBOLLA eta GONZÁLEZ  
soziologoek aldetik. Egoitza-txartelari honen baitan sartzen ez diren beste hainbat  
erregistro-datu gehitzen zaizkio; besteak beste, erantzunaren zain dauden  
asilo-eskatzaileak, egoitza-baimena izan duten ikasleak edo bestelakoak eta honen  
berritze-prozesuan dauden migratzaileak, eta abar<sup>18</sup>.

2019. urte amaieran PorCausa fundazioak burututako ikerketak erakusten du Espainian  
390.000 eta 470.000 aldeko migrante irregular daudela, Europar Batasunetik kanpoko  
immigranteen 11-13% suposatzen duena<sup>19</sup> eta Espainian bizi den biztanleriaren %1a  
baino gutxiago, FANJUL ikertzaileak azaltzen duen moduan<sup>20</sup>. Etorrin irregularren  
jatorriari dagokionez, 4/5 a Erdialdeko eta Hegoamerikakoa da, Afrikakoa immigrazio  
irregularren %0,2a bakarrik suposatuz<sup>21</sup> (Grafika I).

*Grafika I: Irregulartasunaren bilakaera jatorriaren arabera*



*Iturria: Fundación PorCausa, 2019*

<sup>17</sup> Ibidem.

<sup>18</sup> Ibidem.

<sup>19</sup>FANJUL Gonzalez, GÁLVEZ-INIESTA, Ismael: Extranjeros, sin papeles e imprescindibles. Una fotografía de la inmigración irregular en España, Investigación PorCausa, 2020, 5. orr.

<sup>20</sup>FAVIERES, Paloma, FANJUL, Gonzalo, LÓPEZ SALA, Ana: Análisis de los Procesos... zit., 2021

<sup>21</sup> FANJUL Gonzalez, GÁLVEZ-INIESTA, Ismael: Extranjeros, sin papeles e imprescindibles... zit., 2020, 10. orr.

PorCausa Fundazioak burututako ikerketak erakusten duen moduan, Europar Batasunetik kanpoko 300.000 etorkin inguru ari dira gaur egun ekonomia informalean lan egiten, lan-baimenik ez dutelako edo hau izan arren ezkutuko ekonomian lan egitera behartuta daudelako. Ezkutuko ekonomian lan egiten duten langile etorkinen ehuneko guztizkoaren %19koa da. Sektoreei dagokionez, jarraian atxikituko den grafikan ikus daitekeenez, etxeko jarduerak biltzen dute egoera irregularrean dauden etorkin enplegatu gehien (80.000 langile, guztizkoaren %30a baino gehiago), ostalaritzan, manufaktura-industrian, gizarte-zerbitzu zein osasun-jardueretan, eraikuntzan eta nekazaritza sektorean presentzia handia dutelarik<sup>22</sup> (Grafika II).

*Grafika II: Langile etorkinen sektore-banaketa*



*Iturria: Fundación PorCausa, 2019.*

<sup>22</sup> FANJUL, Gonzalez, GÁLVEZ-INIESTA, Ismael: Extranjeros, sin papeles e imprescindibles...zit., 2020, 11. orr.

### 3. IMMIGRAZIO IRREGULARRAREN INGURUKO GAUR EGUNGO ARAUKETA

#### 3.1. Nazioarteko araudia eta jurisprudentzia

Espainiak hainbat nazioarteko hitzarmen onartu eta sinatu ditu azken urte hauetan. Horietako bat *Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Ituna* dugu, Nazio Batuen babespean egindako gobernuen arteko lehen akordioa dena. Itun honen sorrera 2016. urtean Batzar Nagusiak onartutako Errefuxiatuentzako eta Migratzaileentzako New Yorkeko Adierazpen Historikoan aurkitzen da, zeinetan estatu kideek Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Itun bat gauzatzeko konpromisoa hartzen duten<sup>23</sup>. Itun honek migratzaile guztien giza eskubideen babesa indartzeko aukera eskaintzen du, haien estatusa edozein dela ere. Hau giza eskubideei buruzko nazioarteko legedian oinarritzen da, eta estatuek migratzaile guztien giza eskubideak errespetatzeko, babesteko eta errealitate bihurtzeko duten konpromisoa berresten du. Bi dira aipatutako itunearen printzipio gidariak, erregresio eta diskriminazio ezaren printzipioak hain zuzen ere<sup>24</sup>. Printzipio hauetan oinarrituz, Itunak 23 helburu ezberdin jasotzen ditu, horietako bat migrazioan urrakortasunak lantzea eta murriztea izanik. Honekin batera, Itunak azaltzen duen moduan, estatu kideek estatus irregularrean bizi diren migratzaileei banakako ebaluazioa egiteko konpromisoa hartzen dute, irregularitateik erregularitatera igartzeko prozesu bat landuz eta erraztuz<sup>25</sup>. Horrela, esan daiteke Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Itunak erregularizazio prozesuaren kontzeptua bildu eta helburu gisa jasotzen duela, estatu kideak honen erabilpena sustatzera behartuz.

Beste aldetik, Espainiako estatua lotetsi egiten dituzten hainbat zuzentarau aurki daitezke Europar Batasuneko testuinguruan. Lehenik, 2008ko abenduaren 16ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/115/EE Zuzentarauak egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako herritarrak itzultzeko estatu kideetako

---

<sup>23</sup> NBE: [Pacto Mundial para una Migración Segura, Ordenada y Regular](#) (GCM) (azken kontsulta: 05/2022)

<sup>24</sup> Ibidem.

<sup>25</sup> 2018ko uztailaren 13ko Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Itunaren 7. helburuaren 23.i): “*Build on existing practices to facilitate access for migrants in an irregular status to an individual assessment that may lead to regular status, on a case by case basis and with clear and transparent criteria (...)*”

arau eta prozedura komuna ezartzen du. Arau honek hirugarren herrialde baten nazionalaren irregularitatearen aurrean bi aukera nagusi ematen dio estatu kideari: hirugarren estatu batera edo beste estatu kide batera eramatea agindu edo estatuan geratzea baimendu (6. artikulua)<sup>26</sup>. Hortaz, arau honek egoera irregularrean dauden baina oraindik modu seguruan eta bizirauteko oinarritzko baldintzen errespetua bermatu gabe kanporatu ezin diren hirugarren herrialdeetako nazionalen erregularizazioa gauzatzera behartzen ditu estatu kideak. Modu honetan, pertsona horien “ez kanporatzeko” egoera idatziz berresten da, bereziki funtsezkoa dena igarobidean dauden migratzaileentzat, beren berariazko egoera frogatu ahal izan dezaten polizia-kontrol nazionaletan, gizarte-zerbitzuetarako sarbidean edo Schengen barneko muga-kontroletan<sup>27</sup>.

Europar Batasuneko itzulera-zuzentarauari lotuta, 2015eko apirilaren 23an, EBJAk C-38/14 auziari buruzko epaia eman zuen (Zaizoune), zeinaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako atal baten aurkeztutako judizio aurreko arazoa ebazten zen, Samir Zaizoune marokoarrak kanporatze-zehapen baten aurka sustatutako prozedura laburtu batean. Honetan Auzitegiak Espainiako araudia 2008/115 Zuzentarauarekiko kontrajarria dela ondorioztatzen du<sup>28</sup>. Izan ere, Espainiako ordenamendu juridikoak kanporaketzearen ordeztu migratzaile irregularrari isun bat jartzea ahalbidetzen duen bitartean, EBko zuzenbidea pertsonaren kanporaketen alde posizionatzen da, epaiak zuzenbide komunitarioaren xedapenak lehentasunez aplikatzeko beharra ezartzen duelarik. Honen harira 2015eko apirilaren 27an BJKNren EBko Zuzenbideko Adituen Sareak jakinarazpen ez-ofizial bat igorri zuen Zaizoune epaiaren garrantzia azpimarratuz, ideia nagusitzat zuena hurrengo azaltzea: Espainian egoera irregularrean dagoen Batasuneko herritarra ez den atzerritar bat kanporatu egin behar da, baina ez da isunik jarri behar.

Jurisprudentzia honek bere garaian indar handia izan zuen arren, 2020ko urriaren 8an EBJAk C-568/19 auzia ebatzi zuen. Honetan organo jurisdikzionalari galdetzen zitzaion

---

<sup>26</sup> GONZÁLEZ BEILFUSS, Markus, KOOPMANS, Julia: Legal pathways to regularisation of illegally staying migrants in EU Member States, *ADMIGOV*, 2021, 4. orr.

<sup>27</sup> REGI, Jordi: Las políticas de migración y asilo en la Unión Europea y sus problemas de aplicación en los Estados miembros, 2020

<sup>28</sup> CÁCERES, Francisco de Cominges: [El tribunal de Justicia de la UE valida la normativa española que prima la sanción de las situaciones de permanencia irregular de extranjeros con multa antes que expulsión](#), *Diario La Ley*, 2022 (azken kontsulta: 06/2022).

Espainiako lurraldean egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako nazionalen itzulera-erabakia oinarritzeko nahikoa ote den EBko Itzultze-Zuzentaraua erabiltzea, nahiz eta herrialde nazionaleko ordenamenduaren arabera erabakia hartzeko egoera irregularrean dagoen migratzaileari astungarri bat izatea exijitzen zaion; bestela, kanporaketaren ordeztu, isuna ezartzen zaio. Auzitegiak aipatutako ebazpenean erabaki egiten du estatu kidea ezin dela zuzentarau horretan zuzenean oinarritu pertsonari buruzko itzulera-erabakia hartzeko eta hura betearazteko, inguruabar astungarririk ez dauden kasutan<sup>29</sup>. Beraz, lehentasunez legedi nazionala aplikatzeko ideia erakusten da EBJAko azken ebazpen honetan, irregularitasun hutsak pertsonarentzat isuna bakarrik suposatuz. Honen ondorioz, aurretik azaldu den moduan, itzulera burutu ez izanak beste betebeharrak dakar estatura: migratzaile horren administrazio-egoera erregularizatzea hain zuzen ere. Edozein kasutan ere, kanporatze agindu bat dagoenean erregularizatzeko prozedura hasi baino lehen pertsonak aginduaren errebokazioa lortu beharko luke. ARRESSEK dioen bezala<sup>30</sup>, Atzerritarrei buruzko Erregelamenduak kanporatze-zehapena errebokatzeko figura jasotzen du, hori posiblea delarik atzerritarak aldeztu aurretik bizileku-baimena lortu duenean soilik.

Migrazio politikan aplikatzen diren beste zuzentzarauak hurrengoak dira: 2002/90/CE, legez kanpoko etorkinei sartzeko laguntzeko delituaren definizio komuna ezartzen eta zirkulazio zein egonaldi irregularrak arautzen dituen; 2009/52/CE Zuzentaraua, egoera irregularrean dauden migratzaileen enplegu-emaileei aplikatu beharreko zehapenak eta neurriak arautzen dituena. Aipatutako arau hauek migratzaile irregularren aurkako borrokan zehapenen eremuan kokatzen diren arren, Europar Batasunak gizaki-salerosketaren biktimei laguntzeko neurriak ezartzen dituzten arauak garatu ditu. Hala nola, 2011/36/UE eta 2004/81/CE Zuzentzarauak, salbuespen gisa, egoitza-baimena

---

<sup>29</sup> Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Seigarren Salako 2020ko urriaren 8ko epaia, C-568/19 auzia ebazten duena: *“Habida cuenta de todos los razonamientos anteriores, ha de contestarse a la cuestión prejudicial planteada que la Directiva 2008/115 debe interpretarse en el sentido de que, cuando la normativa nacional, en caso de situación irregular de nacionales de terceros países en el territorio de un Estado miembro, imponga, o bien una sanción de multa, o bien la expulsión, teniendo en cuenta que la segunda medida solo puede adoptarse si existen circunstancias agravantes en la persona de dichos nacionales, adicionales a su situación irregular, la autoridad nacional competente no podrá basarse directamente en lo dispuesto en la Directiva para adoptar una decisión de retorno y hacer cumplir dicha decisión aun cuando no existan circunstancias agravantes”*.

<sup>30</sup> ARRESE IRIONDO, MARÍA NIEVES: La revocación de la sanción de expulsión a personas extranjeras en situación irregular en territorio estatal, *Revista Española de Derecho Administrativo*, 359-382 orr.

ematen diete estatu kideetako agintariei laguntzeko eta lankidetzan aritzeko borondatea erakusten duten egoera horien biktimei<sup>31</sup>.

### **3.2. Espainiako araudia eta jurisprudentzia**

Hasteko, esan beharra dago Espainiako Konstituzioko 149.1.2. artikulua, Estatuko eskumen eskusiboari buruzkoa, nazionalitatea, immigrazioa, emigrazioa, atzerritartasuna eta asilo eskubidea Espainiako estatuko eskumen eskusibotzat hartzen dituela. Gainera, dakigunez, lege organikoak oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen garapenari buruzkoak direla jasotzen du EKko 81.1. artikulua<sup>32</sup>.

Horrela, aztertzen ari den gaiaren arira, atzerritarren eskubideak garatzeko lege organikoaren beharra jasotzen du Konstituzioak. Izan ere, legegileak urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa garatu zuen, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei zein haien gizarteratzeari buruzkoa. Lege honen helburua immigrazioa egitura-egitate gisa jorratzeko planteatutako premiei erantzuna ematen saiatzen zen, Espainia migrazio-fluxuen helmugako herrialde bihurtu izanagatik. Horrez gain, zioen azalpenak adierazten duen moduan, araua Espainiak arlo horretan bere gain hartutako nazioarteko konpromisoak txertatzeko beharrei ere erantzun zion.

Lege Organiko honek lau erreforma ezberdin jasan ditu onartua izan zenetik: abenduaren 22ko 8/2000 LO, irailaren 29ko 11/2003 LO, azaroaren 20ko 14/2003 LO eta azkena, abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa. Azken hau apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bitartez garatu da, Atzerritartasun Erregelamendu gisa ezagututakoa, erreforma ondorengo 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena.

Estatuan aurkitzen diren atzerritarren erregularizazioari dagokionez, legegilearen nahia arau honen 31. artikuluan azaltzen da, honako honetan oinarritzen dena<sup>33</sup>: Espainian

---

<sup>31</sup> REGI, Jordi: Las políticas de..., zit., 2020

<sup>32</sup> 1978ko Espainiako Konstituzioa, 81.1. art: *“Son leyes orgánicas las relativas al desarrollo de los derechos fundamentales y de las libertades públicas, las que aprueben los Estatutos de Autonomía y el régimen electoral general y las demás previstas en la Constitución”*.

<sup>33</sup> Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei zein haien gizarteratzeari buruzkoa, 31. art: *“La Administración podrá conceder una autorización de residencia temporal por situación de arraigo, así como por razones humanitarias, de colaboración con la Justicia u otras circunstancias excepcionales que se determinen reglamentariamente (...)”*.



egonaldi irregularra egin ondoren, aldi baterako bizileku-baimena, eta, hala badagokio, lan-baimena eman dakiok migratzaileari, sustraitze-egoera egiaztatzen bada. Dena den, LO-k azaltzen duen ideia ohiko erregularizazioari egiten dio erreferentzia, ez, aldiz, lanean lantzen ari den ezohiko erregularizazioari.

### **3.1.2. Ohiko erregularizazio-prozedurak *arraigo* edo sustraitze kontzeptuan oinarrituta**

Egoera administratibo irregularretik erregularrera igarotzeko ohiko prozedurak hurrengoak dira. Lehenik, sustraitze- edo *arraigo* kasuak aurkitzen ditugu, lanekoa, soziala edo familiarra izan daitekeena, Espainian egonaldi edo bizileku baimenik gabe egoera irregularrean dauden atzerritarrei aplika dakiok. Sustraitzea eman ahal izateko TRIGUEROk azaltzen du<sup>34</sup>, Auzitegi Goreneko 2002ko uztailaren 6ko epaiari jarraiki, atzerritar errekurtsogilea bizi den tokiarekin lotzen duten loturak egon beharko dira, ekonomikoak, sozialak, familiakoak, lanekoak, akademikoak edo bestelakoak, lotura horiek garrantzitsuak izan beharko dira helegileak herrialdean bizitzeko duen interesa balioesteko. Mekanismo hau 2004an sartu zen lehen aldiz, 2014-2018 urte bitartean ezohiko egoera hauetan oinarrituz Espainian 193.368 pertsonen bizileku-baimena lortu zutelarik, Gizarteratze, Migrazio eta GS Ministerioak 2020. urtean egindako ikerketak adierazten duen moduan<sup>35</sup>.

Lanekoari dagokionez, prozedura honek Espainian aurkitzen diren atzerritarrei aldi baterako egoitza-baimena eskuratzeko aukera zabaltzen die, gutxienez sei hilabetez lan-harremanak izan badituzte. Sustraitze hau, alde batetik, aipatutako urtarrilaren 11ko 4/2000 LOn arautzen da (31. artikulua), eta beste aldetik, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuan, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei zein haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena, 2/2009 LOren bidez aldatu ondoren. Aipatutako azken arauaren 124.1. artikulua ohiz

---

<sup>34</sup> TRIGUERO MARTÍNEZ, Luis Ángel: El arraigo y los modelos actuales jurídico-políticos de inmigración y extranjería, *Revistas COMILLAS*, 2014, 437. orr.

<sup>35</sup> GONZÁLEZ BEILFUSS, Markus, KOOPMANS, Julia: Legal pathways to ..., zit., 26-27 orr.

kanpoko inguruabarrak direla-eta egoitzara sartzea ahalbidetzen duten figuretako bat bezala aurreikusten du lan-sustraitzea<sup>36</sup>.

Arauk xedatzen duenari jarraiki, erregularizazioa eskuratu nahi duen pertsonak hurrengo baldintzak betetzen dituela frogatu behar izango du: Europar Batasuneko, Europako Esparru Ekonomikoko edo Suitzako herritarra edo herritar baten senidea ez izatea; Espainian eta egondako aurreko herrialdeetan aurrekari penalik ez izatea; Espainiako estatuan sartzea debekatuta ez izatea; hala badagokio, jatorrizko herrialdera borondatez itzultzean atzerritarrak Espainiara ez itzultzeko hartutako konpromisoaren epearen barruan ez egotea; Espainian gutxienez bi urtez jarraian egon izana (etengabetzat hartuko da azken bi urteetan absentziak ez badira 90 egunetik gorakoak izan); eta azkenik, gutxienez sei hilabeteko iraupena duten lan-harremanak daudela frogatu ahal izatea<sup>37</sup>.

Azaldutako azken betekizuna, 124.1. artikulua azaltzen duen moduan, lan-harremana eta haren iraupena egiaztatzeko, interesdunak hori aitortzen duen ebazpen judiziala edo Laneko eta GSko Ikuskatzailearen arau-haustearen akta berresten duen administrazio-ebazpena aurkeztu beharko du<sup>38</sup>. Dena den, Jurisprudentziak betekizun hau frogatzeko baldintzak aldatu ditu hainbat epaien bitartez, horietako bat 2021ko martxoaren 25eko Auzitegi Goreneko 452/2021 epaia izanik.

Honetan AGk zehazten du 124.1. artikulua bigarren paragrafoak ez duela esan nahi lan-harremana eta haren iraupena bertan ezarritako bitartekoen bidez soilik egiaztatu behar direnik, baizik eta zuzenbidean baliozko den edozein frogabideren bidez frogatu ahal izango dela (bosgarren oinarri juridikoa). Izan ere, epaiaren laugarren OJ-ri men eginez, 557/2011 Errege Dekretuko 124.1. artikulua bigarren zatia ezin da

---

<sup>36</sup> Apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, 124.1. art: *“Por arraigo laboral, podrán obtener una autorización los extranjeros que acrediten la permanencia continuada en España durante un periodo mínimo de dos años, siempre que carezcan de antecedentes penales en España y en su país de origen o en el país o países en que haya residido durante los últimos cinco años, y que demuestren la existencia de relaciones laborales cuya duración no sea inferior a seis meses.*

*A los efectos de acreditar la relación laboral y su duración, el interesado deberá presentar una resolución judicial que la reconozca o la resolución administrativa confirmatoria del acta de infracción de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social que la acredite”.*

<sup>37</sup> SECRETARIA DE ESTADO DE MIGRACIONES: [Autorización residencia temporal por circunstancias excepcionales. Arraigo laboral](#). *Portal de Inmigración, 2016* (azken kontsulta: 06/2022)-

<sup>38</sup> 1/2021 Instrukzioa, lan-sustraitzearen ondoriozko aldi baterako bizileku-baimenei buruzko prozedurari buruzkoa.

lan-sustraitzearen frogabideak mugatzera bideratuta dagoen zentzu hertsian interpretatu, baizik eta horren froga erraztera bideratuta dagoena<sup>39</sup>. Bereziki lan-harreman klandestinoak direnean, inguruabar horrek froga-zailtasuna dakar eta. Manuaren helburua, beraz, ezkutuko edo legez kanpoko lan-harremanetatik datozen egoerak egiaztatzeko sor daitezkeen arazoak gainditzen laguntzea da, eta ez, aldiz, lan-sustraitzearen kontzeptua lan-harreman espezifikoki batera mugatzea, legez kanpoko edo ezkutuko harreman batera hain zuzen ere. Ideia berbera azaltzen dute AGko beste epaiek, 2021ko apirilaren 29ko 599/2021 zein urte bereko maiatzaren 6ko 643/2021 epaiek kasu<sup>40</sup>.

Gizarteratzeko, GSren eta Migrazioetako Ministerioak adierazten duen moduan, epai hauen argitarapena instrukzio baten beharra eragiten du. Instrukzio izeneko tresna juridikoa urriaren 1eko Sektore Publikoko Erregimen Juridikoari buruzko 40/2015 Legeko 6.1. artikulua aurreikusten du. Instrukzioak administrazioaren antolamenduari eta jokabideari buruzko barne-arauak dira, zeinen bitartez hierarkikoki Administrazioiko goiko organoen menpean aurkitzen diren organoen jardura zuzendu daitekeen. Kasu honetan, Gizarteratzeko, GSko eta Migrazioetako Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen apirilaren 28ko 497/2020 Errege Dekretuaren 5. artikulua Migrazioen Estatu Idazkaritzari esleitzen dio atzerritartasunaren, immigrazioaren eta emigrazioaren arloko Gobernuaren politika landu eta garatzea<sup>41</sup>. Horretarako, 6.2. artikuluko a) atalean Araubide Juridikoaren Zuzendariorde Nagusiari esleitzen zaio Administrazioiko organoei zuzendutako arauak garatzeko instrukzioak prestatzea<sup>42</sup>.

Horrela, aipatutako organoaren eskutik, Lan-sustraitzearen ondoriozko aldi baterako bizileku-baimenen prozedurari buruzko 1/2021 Instrukzioa jaiotzen da. Jarraibide honek, AGren iritzitari men eginez, edozein lan-harreman lan-sustraitzearen ondoriozko

---

<sup>39</sup> Martxoaren 25eko Auzitegi Goreneko 452/2021 epaia, 4. OJ: “(...)La finalidad del párrafo segundo del art. 124.1 del Reglamento no es, ni puede ser, rectamente interpretado, la de restringir los medios de prueba del arraigo laboral, sino, por el contrario, la de facilitar la prueba del mismo cuando tenga sobre la base relaciones laborales clandestinas, precisamente, por la dificultad de prueba que de tal circunstancia deriva (...)”.

<sup>40</sup> 1/2021 Instrukzioa, lan-sustraitzearen ondoriozko aldi baterako bizileku-baimenei buruzko prozedurari buruzkoa.

<sup>41</sup> Ibidem.

<sup>42</sup> GSko eta Migrazioetako Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen apirilaren 28ko 497/2020 Errege Dekretua, 6.2. a) art: “De la Dirección General de Migraciones dependen: a) La Subdirección General de Régimen Jurídico, a la que corresponde el ejercicio de las funciones enumeradas en los párrafos a), b), y c) del apartado 1(...)”.

egoitza-baimena eskuratzeko bidea ireki ezin dezakeela adierazten du. Beraz, Instrukzioan baimena lortzeko behar besteko garrantzia ez duten lan-harremanak alde batera uzten dira, langileari eta haren familiari bizi-maila egokia emango dien ordainsari zuzen eta nahikoa jasotzeko eskubidea ematen ez diotenak zehazki<sup>43</sup>.

Lan-sustraitzearen ondorioz bizileku-baimena eragin dezaketen lan-harremanak kontsideratzeko beharrezkoa izango da soldata lanbide arteko gutxieneko soldataren berdina edo handiagoa izatea. Ordu-kopuruari dagokionez, analogikoki 557/2011 Errege Dekretuaren 124.2. artikulua gizarte-sustraitzearen inguruan xedatutakoa aplikatuko da, lanaldi partzialeko kontratuetan astean gutxienez 30 orduko lanaldia izatea konkretuki. Hala ere, posiblea da lan-harreman irregularrak, ebazpen judizial edo Laneko eta GSren Ikuskatzailearen akta bidez frogatutakoak, lan-sustraitzea ahalbidetzeko garrantzia duten lan-harreman gisa ulertzea, frogagiri horiek berez eman baitiote garrantzi hori. Esandakoarekin batera, jakin beharra dago sustraitze honek alde batera uzten dituela norberaren konturako burututako lanak eta 6 hilabeteko gutxieneko epea betetzat joko dela nahiz eta interesdunak kontratu ezberdinak izan edo enplegatzaile ezberdinentzako lan egin izan. Amaitzeko, kontuan hartu beharra dago, AGk azaltzen duen moduan, lan-harreman hau frogatzeko zuzenbideko edozein frogagirik balio duela, eta ez, ordea, bakarrik ebazpen judizialak edo GSIren aktak<sup>44</sup>.

Aurkeztu dugun kasuan ikus daiteke erregularizazio-prozeduran lege azpiko zein erregelamendu azpiko arauak hartzen duten protagonismo edo garrantzia, instrukzioek hain zuzen ere. Azaldutako instrukzioak, Jurisprudentziak ezarritako baldintzekin konparatuz, nahiko murriztailea kontsideratu egin da lan-sustraitzearen ondorioz baimena eskuratu ahal izateko, beren konturako lan egiten duten langileak zein astero 30 ordu baino gutxiagoko lanaldia duten langileak alde batera uzten baititu.

Instrukzio honen erreakzio gisa Herriaren Defendatzailearen aurrean kexa bat aurkeztu zen Guillermo Morales Catá-ren eskutik, 2021eko uztailaren 1ean. Kexa honetan adierazten da instrukzioa atzerritartasun legearen zein AGko jurisprudentziaren aurka eman duela lan-sustraitzeari buruzko zenbait alderdi zehazteko eskumenik ez duen

---

<sup>43</sup> 1/2021 Instrukzioa, lan-sustraitzearen ondoriozko aldi baterako bizileku-baimenei buruzko prozedurari buruzkoa.

<sup>44</sup> Ibidem.

organo batek, lan-harreman mota mugatzeko edo salbuespenezko baimen hori eskatzeko balio duen kontratu-modalitatea zehazteko orduan<sup>45</sup>. Era berean, Zuzenbidearen aurkako analogia bat ezartzen dela defendatzen da kexa-idazkian, gizarte-sustraitzea eta lan-sustraitzea baldintza ezberdinak dituzten bi baimen-mota direla eta.

Herriaren Defendatzaileak 2021ko uztailaren 9an kexa honi erantzun zion, Instrukzioari buruz egindako balorazioa indargabetuz. Hots, Instrukzioak Auzitegi Goreneko azken jurisprudenzia urratzen ez duela adierazten du, eta, gainera, Administrazioak bere burua antolatze duen ahalmenaren barruan sartzen dela defendatzen da erantzunean, horrek aukera ematen diolarik Migrazioen Estatu Idazkaritzari Estatuko Administrazio Orokorren organoei zuzendutako arauak garatzen dituzten instrukzioak emateko<sup>46</sup>.

Adierazitako egoera honek argi uzten du migrazio arloan, eta batez ere erregularizazio-prozedurei dagokionez, lege azpiko eta erregelamendu azpiko arauak hartzen duten gehiegizko garrantzia. Prozedura gidatzen duten xedapenak zein baimena eskuratzeko bete beharreko betekizunak zehaztuta ez egoteak prozeduraren segurtasun juridikoan eragiten du negatiboki, interesdunaren zein erabakia hartzeko eskudun den organoaren kaltetan. Horrez gain, epai kontraesankorrak argitaratzea zein erabaki arbitrario eta inpartzialak hartzea eragin dezake, herritarrek prozedurarekiko zein administrazio- eta agintari judizialekiko duten fidagarritasuna larriki kaltetuz.

Laburki gizarte-sustraitze eta sustraitze-familiarra azaltzearren, bigarren hau urtarrilaren 11ko 4/2000 LOn (31.3. art.), apirilaren 20ko 557/2011 EDn (123-130 arts) eta Immigrazioko Zuzendaritza Nagusiko Araubide Juridikoaren Zuzendariordetza Nagusiaren 10/2008 Instrukzioan arautzen da, salbuespenezko inguruabarren ondoriozko aldi baterako bizileku-baimenei buruzkoa, jatorriz espainiarrak izan diren aitaren edo amaren seme-alaben kasuan. Hurrengo betekizunak bete beharko dira baimena eskuratu ahal izateko: Europar Batasuneko, Europako Esparru Ekonomikoko edo Suitzako herritarra edo herritar baten senidea ez izatea; Espainian eta egondako aurreko herrialdeetan aurrekari penalik ez izatea; Espainiako estatuan sartzea debekatuta ez izatea; hala badagokio, jatorrizko herrialdera borondatez itzultzean atzerritarrak

---

<sup>45</sup> Guillermo Morales Caták Herriaren Defendatzailearen aurrean 2021eko uztailaren 1ean aurkeztutako [kexa](#)

<sup>46</sup> Francisco Fernández Marugán Espainiako Herriaren Defendatzaileak 2021ko uztailaren 9an argitaratu zuen [erantzuna](#) web orrialde ofizialean.

Espainiara ez itzultzeko hartutako konpromisoaren epearen barruan ez egotea; eta azkenik, Espainiako nazionalitatea duen adingabeko aita edo ama izatea, edo jatorriz espainiarra zen aitaren edo amaren semea edo alaba izatea<sup>47</sup>.

Aztertzeiko falta den azken sustraitze-egoera, soziala, urtarrilaren 11ko 4/2000 LOI (31.3. art.), apirilaren 20ko 557/2011 EDn (62-66 eta 123-130 arts.), merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko maiatzaren 25eko 19/2012 Errege Lege Dekretuan eta urriaren 1eko 39/2015 Legean arautzen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena<sup>48</sup>.

Prozedura honetan, aldi baterako bizileku-baimena eskuratzeko, betekizun orokorrez gain, hurrengo eskatuko zaio interesdunari. Alde batetik, Espainian gutxienez hiru urtez jarraian egon izana, epe horretako ausentziek ezin dutelarik 120 eguneko epea gainditu. Beste aldetik, Espainian bizi diren beste atzerritar batzuekin edo espainiarrekin familia-loturak izatea exijitzen zaio, ezkonkidea edo izatezko bikotekide erregistratua, lehen graduko edo zuzeneko lerroko aurrekoak edo ondorengoak izanik. Bestela, ohiko bizilekua duen lurraldeko autonomia-erkidegoak (edo AEk horretarako baimena eman badu, udalak) egundako guzarteratzea egiaztatzen duen txostena aurkeztu dezake eskatzaileak.

Amaitzeko, langileak eta enplegatzaileak sinatutako lan-kontratua izatea eskatuko zaio, gutxienez urtebeterako. Enpresa edo enplegatzailea GSn inskribatuta egon beharko da, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izanik. Enpresak, halaber, etengabeko jarduera bermatu beharko du, eta baliabide ekonomiko, material edo pertsonalak izan beharko ditu bere enpresa-proiektuari eta kontratutik eratorritako betebeharrari aurre egiteko. Onartzen da okupazio berean kontratu bat baino gehiago aurkeztea, enplegatzaile ezberdinak izan arren, guztiak ere gutxienez urtebetekoak, horien baturak astean gutxienez 30 orduko lanaldia izanik. Garrantzitsua da jakitea kontratua aurkeztetik salbuetsi ahal izango dela, baldin eta egiaztatzen bada baliabide

---

<sup>47</sup> SECRETARIA DE ESTADO DE MIGRACIONES: Autorización residencia temporal por circunstancias excepcionales. Arraigo familiar. *Portal de Inmigración, 2016* <https://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/informacionprocedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja037/index.html> (azken kontsulta: 06/2022).

<sup>48</sup> SECRETARIA DE ESTADO DE MIGRACIONES: Autorización residencia temporal por circunstancias excepcionales. Arraigo social. *Portal de Inmigración, 2016* <https://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/informacionprocedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja036/index.html> (azken kontsulta: 06/2022).

ekonomiko nahikoak dituela edo baliabide horiek norberaren konturako jarduera baten ondorio direla, AEk egiten duen gizarteratze-txostenak hala eskatzen badu.

Sustraitze-kasuak alde batera utziz, ezohiko beste egoera batzuk aurreikusten dira ordenamendu juridikoan<sup>49</sup>:

- Salbuespenezko zirkunstantziengatik aldi baterako bizileku-baimena arrazoi humanitarioengatik.
- Espainian egoera irregularrean dauden genero-indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrek ezohiko inguruabarrak direla-eta bizileku- eta lan-baimena lortu ahal izango dute. Salaketaren unean Espainian dauden seme-alaba adingabeek edo desgaituek bizileku- edo bizileku- eta lan-baimena lortu ahal izango dute, hamasei urtetik gorakoak badira.
- Aldi baterako bizileku-baimena, nazioarteko babes delata-eta.
- Aldi baterako bizileku-baimena, polizia, zerga, justizia eta segurtasun nazionaleko agintariekin lankidetzan aritzeagatik.
- Aldi baterako bizileku-baimena, administrazio-agintariekin edo interes publikoarekin lankidetzan aritzeagatik.
- Aldi baterako bizileku-baimena, lan egiteko gaitzen duena, eta Adingabeak Babesteko Zerbitzu baten tutoretzapean, babespean, behin behineko babesean edo zaintzapean egon den atzerritar bati eman ahal izango zaiona, baldin eta adin nagusitasunera iritsi bada inoren kargura ez dagoen adingabe gisa aldi baterako bizileku-baimenaren titular izan gabe.
- Poliziakoak ez diren agintariekin antolatutako sareen aurka lankidetzan ari diren atzerritarrek bizileku- eta lan-baimena lortu ahal izango dute, baldin eta prostituzioan eskulanaren edo esplotazioaren legez kanpoko trafikoko-ekintza baten biktima, kaltetu edo lekuko badira eta haien beharrian-egoeraz abusatzen badute.
- Bizileku-eta lan-baimena lortu ahal izango dute agintari polizial, fiskal edo judizialekin antolatutako sareen aurka lankidetzan ari diren atzerritarrek, baldin eta prostituzioan eskulanaren edo esplotazioaren legez kanpoko trafikoko-ekintza

---

<sup>49</sup> SECRETARIA DE ESTADO DE MIGRACIONES: [Autorización residencia temporal por circunstancias excepcionales](#). *Portal de Inmigración, 2016* (azken kontsulta: 06/2022).

baten biktima, kaltetu edo lekuko badira eta haien beharrian-egoeraz abusatzen badute.

- Bizileku- eta lan-baimena giza salerosketaren biktima diren atzerritarrei. Identifikatzeko unean Espainian dauden seme-alaba adingabeek edo desgaituek bizileku-baimena lortu ahal izango dute, edo bizileku- eta lan-baimena, hamasei urtetik gorakoak badira.

### **3.2.2. Ezohiko erregularizazio-prozedurak: oinarri juridikoa**

Prozedura hau une bakoitzean dagokion erregularizazio-prozesua onartzen duen arauak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten atzerritarrei legez eskatutako administrazio-baimenak ematean datza. Ezohiko prozedurak dira, iraungitze-aldi jakin bat baitute, eta hortik kanpo, nahiz eta eskatutako baldintzak bete, ezin da erregularizazio hori egin. Hortaz, sustraitze-egoeretatik ezberdindu egiten dira bi alderditan. Prozedura arruntaren barruan, salbuespenezko inguruabarrak denboran mantentzen diren erregularizatzeko mekanismoak dira, norbanako bakoitzaren egoera kontuan hartzen dutenak. Aldiz, ezohiko erregularizazioa, esan dugun moduan, erregularizazio hori gauzatzeko onartzen diren arauak arautzen dute, denboran jarraituak ez direnak<sup>50</sup>. Gainera, prozedura kolektiboak dira, egoera irregularrean dauden eta onartutako baldintzak betetzen dituzten atzerritar guztien erregularizazioa onartzen dutenak, baldin eta eskaera aurkeztu bada.

Ezohiko erregularizazio-prozeduren funtzionamendua ulertzeko, hurrengo orrialdeetan Espainian historian zehar eman diren erregularizazioak azalduko ditugu, prozesu hori aurrera eramateko modu desberdinak daudela erakutsiz. Horrez gain, Europar Batasunean zein nazioarteko beste herrialdeetan mekanismo honen erabilera ohikoa dela frogatuko da, lurralde bakoitzaren migrazio-politikaren eta -egoeraren isla argia dela adieraziz.

---

<sup>50</sup> GONZÁLEZ BEILFUSS, Markus, KOOPMANS, Julia: Legal pathways to...zit., 29. orr



## 4. EZOHIKO ERREGULARIZAZIO-PROZESUAK NAZIOARTEKO MAILAN ETA ESPAINIAN

### 4.1. Nazioarteko esparruko ezohiko erregularizazio-prozedurak

Espainiako eta Europar Batasuneko erregularizazio-prozesuen bilakaera eta funtzionamendua azaldu baino lehen, garrantzitsua da Europatik kanpoko beste lurraldeetan prozesu hauen bilakaera ezagutzea.

Afrikari dagokionez, hau funtsean migrazio-kontinentea da, mugikortasunaren %75a eskualdean geratzen delarik. Datu demografikorik ez izateak, gizarte- eta ekonomia-antolamenduan informaltasun-maila handia izateak edo mugen porositateak erraztu egiten dute analisisien espekulazioa. Mendebaldeko eta hegoaldeko Afrika migrazio-helmuga duten eskualdeak diren bitartean, Magreb<sup>51</sup> finkatu egiten da migratzaileak Europarantz igartzeko, jatorrizko eta Europara migratzen duten pertsonen helmugako eskualde gisa. Zailtasun ekonomiko eta enplegarritasun-arazoak izan arren, Afrikak ere eskualdeko integrazio kasuak eta praktika onak eskaintzen ditu<sup>52</sup>.

Honen baitan Hegoafrikako adibidea aurki daiteke, Saharaz hegoaldeko Afrikako migrazio-helmuga handiena dena; 4 milioi baino gehiago 2019an. Sarritan, migratzaile irregularrak erregulatzeko programak egiten ditu, irismen desberdinekoak, Afrika Australeko Garapen Elkartearen esparruko programen arabera. Programa horietan, lidergo handia du Hegoafrikak, zeinaren onuradunei bizileku iraunkorreko baimena ematen die. Zimbabuerekin ere bitariko programak egiten ditu, honen herritarrei aldi baterako bizileku-baimenak, lan-baimenak, ekintzailtza- eta ikasketa-baimenak ematen dizkien, baina egoitza iraunkor baterako sarrera izan gabe<sup>53</sup>.

Maroko, bere aldetik, jatorrizko herrialdea izatetik migrazio-helmuga izatera igaro da. EB-ren migrazio- eta muga-kanporatzearekin, Marokok eragin handia du bere agendan eta interes nazionaletan. Horrela, EBrekiko berronarpen-akordio bat saihesteko eta

---

<sup>51</sup> “Forma tradicional española del nombre del área del norte de África que comprende Marruecos, Argelia y Túnez y, considerada más ampliamente, también Libia, Mauritania y el Sáhara” (RAE, 2005)

<sup>52</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: [Historia de las Regularizaciones del mundo](#). Regularizaciones en otras regiones, *porcausa.org*, 2021

<sup>53</sup> Ibidem.

honekiko negoziazioetan duen eraginari eusteko, babesgabetasunagatiko, tratu txarreatiko eta kanporatzeengatiko salaketak izan arren, Marokok Migrazio eta Asilo Estrategia Nazionala onartu zuen 2014an<sup>54</sup>. Horrek berekin migratzaile irregularren ezohiko erregularizazioa ekarri zuen, 2014 eta 2017. urteetan.

Afrikako erregularizazio-prozesuen beste adibide bat Gabon herrialdean emandakoa daukagu, 1985. urtean. Honetan, Gobernuak atzerritar guztiak erregistratzera gonbidatu zituen, erregistro-egintzak atzerritarrei eskubidea ematen dielarik beren egoera legezatzan duen eta zenbait eskubide aitortzen dizkien dokumentu bat eskuratzeko; dokumentu honek, beraz, legezko estatusa aitortzen die. Aukera hau herrialdean zeuden atzerritar guztiei eman zitzairen, guztira 55.000 onuradun egon zirelarik<sup>55</sup>.

Bestetik, Asiako kontinenteari dagokionez, 2017an mundu osoko nazioarteko 258 milioi migratzaileetatik 106 milioi, guztizkoaren %40a baino gehiago, Asian jaio ziren. Kontinente honetan migrazio-helmuga nagusiak Singapur eta Golfoko herrialdeak dira, bertako biztanleriarekiko immigranteen ehuneko oso handiak dituztenak. Gainera, haien ekonomiak immigrazioaren mende daude bizirauteko.

Hegoaldeko Koreak, bere aldetik, Asiako migranteen integrazio arloan lidergoa dauka. Izan ere, hainbat erregularizazio programa gauzatzen ditu, egoitza iraunkorrerako zein nazionalitatea eskuratzeko bideak malgutuz joan delarik. Adibidez, 2004. urtean kualifikaziorik gabeko langile atzerritarrentzako lan-baimenen sistema bat eratu zen, sistema honek bisatuetan aurreikusitakoa baino denbora gehiago geratzen direnak barne hartzen zituelarik; ez, aldiz, klandestinitatean sartzen diren agiririk gabeko migratzaileak<sup>56</sup>.

Asiako beste adibide bat jartzearren, Errusiako Gobernuak etengabe erregularizatu ditu 1990eko hamarkadan Errusiako Federaziora irtsi ziren SESBeko herritarren egoera, Gobernuak “*casos antiguos*” bezala ezagutzen dituen pertsonen egoera konkretuki.

---

<sup>54</sup> Ibidem.

<sup>55</sup> Ibidem.

<sup>56</sup> MEN JI KIM: The Republic of Korea's Employment Permit System (EPS): Background and Rapid Assessment, *International Labour Office*, 2015, 33. orr.

2005. urtean 300.000 herritar erregularizatu ziren prozesu honen bitartez, errusiar herritartasuna eskuratuz<sup>57</sup>.

Jarraituz, Amerikari dagokionez, kontinente hau nazioarteko giza mugikortasunaren ardatza izan da betidanik, Amerika migrazioan eraiki dela esan ahal delarik. Esaterako, Estatu Batuek erregularizazio masiboko programa handietara jotzen dute aldizka. Herrialde honetako historia hurbileko erregularizazio handienak, 1986koak, 2,7 milioi langileren lan-aukerak hobetu zituen egoitza-baimena iraunkorra eskainiz; honek diru-sarrerak handitu zituen, eta ondorioz, ongizatea hobetu. Gainera, Estatu Batuen eta Mexikoren arteko muga modu irregularrean zeharkatzen saiatzen ari ziren pertsonen atxiloketak gutxitu egin ziren<sup>58</sup>.

Bestetik, azken 20 urteetan, 2001eko Dream Act delakoaren hamar bertsio aurkeztu dira Kongresuan, inoiz onartu ez direnak. Guztiek AEBetara agiririk gabe heldu ziren gazteetat legezko estatusa lortzeko bidea zabaldu egingo zuketena. Bertsio berrienak, 2019koak, bide bat eskainiko luke estatubatuar herritartasunerako unibertsitatearen, lanaren edo indar armatuen bitartez, ekimen horretan 2,31 milioi pertsona sar litezkeelarik<sup>59</sup>. Era berean, 2021. urtean Biden presidenteak Estatu Batuetako Kongresuan bultzatzen ari den migrazio-erreforma handiaren arabera, AEBetako lurzoruan egoera irregularrean dauden 11 milioi pertsona erregularizatuko dira, “dreamers”<sup>60</sup> deitutakoak barne hartzen dituena<sup>61</sup>.

Estrategia hau Barack Obamak 2012. urtean martxan jarritako haurrentzako Ekintza Programa Bereziaren (DACA) antzekoa da, “dreamers”-ak deportazitik babesteko aldi baterako neurria izan zena, lege federalik ez zegoelako. 2017. urtean Trump presidenteak geldiarazi egin zuen, eta 2020ko ekainaren 18an, Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zuen Trumpen plana. Hala eta guztiz ere, DACA programaren arazoa hurrengo da: lege federala ez denez, ez die etengabeko estatus legala ematen pertsonen, bi urtean behin berri behar izanez. Hau da, ez du herritartasuna lortzeko biderik ematen, baina herrialdean geratzeko baimena ematen badu, lan-baimenak sortzen ditu,

---

<sup>57</sup> PARLIAMENTARY ASSEMBLY: Regularisation programmes for irregular migrants, 2007, 16-17 orr.

<sup>58</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las..., zit., 2021

<sup>59</sup> Ibidem.

<sup>60</sup> Gurasoek haurrak zirenean Estatu Batuetara baimenik gabe ekarri zituztenak (Ramos, 2021).

<sup>61</sup> RAMOS, Jorge: [Este es el plan B para la reforma migratoria](#), *The New York Times*, 2021 (azken kontsulta: 04/2022).

honek dakartzan abantail eta eskubide guztiekin. Estatu batzuetan, bekak eta maileguak jasotzeko aukera ere eman die programak atzeritarrei, Estatuaren finantzaketarekin, eta bizilekuaren arabera onuradunek laguntza mediko subsidiatua jaso dezakete ere<sup>62</sup>.

Bestalde, Latinoamerikako eskualdeak ezegonkortasun politiko, soziala, ekonomiko eta ingurumenekoa bizi izan du azken urteotan, honen adibideak migratzaileen karabanak, Txileko, Kolonbiako, Ekuadorreko, Nikaraguako, Peruko edo Haitiko protesta zibilak, Boliviako estatu-kolpea eta Venezuelako exodoa izanik. 1990az geroztik, eskualde-integrazioak (Mercosur, Andeetako Komunitatea, UNASUR...) integrazioa eta erregularizazioa erraztu ditu. 2000tik indarrean dagoen Mercosurreko kide diren estatuetako elkartuetaji herritarrentzako bizilekuari buruzko Akordioak pertsonen zirkulazio askea proposatu zuen, eskubideak integratzeko eta babesteko bide gisa. Argentinak eta Boliviak 2004an berretsi zuten; Brasilek, Txilek eta Uruguai 2005ean, Paraguaik 2008an, Ekuadorrek eta Peruk 2011n eta Kolonbiak 2012an. Akordioak bere baitan daramatzen neurri berritzaileenak hurrengoak dira: migratzeko eskubidearen aitortpena, estatuak erregularizazioa sustatzeko duten betebeharra eta eskubideen aitortpena, haien erregularitate-egoera kontuan hartu gabe<sup>63</sup>.

Argentinak, Brasilek, Ekuadorrek, Peruk eta Uruguai aktiboki sustatzen dute erregularizazioa, eta Estatuaren betebehartza eta migrazio-politiken printzipio gidarizat hartzen dute, hala jasota dagoelarik beren ordenamendu juridikoetan. Gainera, aipatutako herrialdeek, Kolonbiarekin batera, eskubide zibil eta sozialen berdintasuna bermatzen dute nazionalen eta migratzaileen artean<sup>64</sup>.

Adibide bat jartzearen, 2004ko Migrazioen Legea arte, Argentinak irregulartasun-poltsa handiak zituen immigratzeko irizpideak betetzeko zailtasunagatik. Gobernuak aministratiak modu erregularrean egin behar zituen (1964, 1974, 1984, 1992, 1994, 2002 eta 2004) irregulartasunaren aurka borrokatzeko eta migratzaileen eskubideak babesteko. Migrazioen Legeak Mercosurren eta Estatu Elkartuen nazionalitate-irizpidera zabaldu zuen, eta, hala, bertakoen erregularizazio masiboa gauzatu zen, aldi baterako 1.500.000 egoitza eta 1.200.000 egoitza iraunkor ekarriz

---

<sup>62</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las..., zit., 2021

<sup>63</sup> Ibidem.

<sup>64</sup> Ibidem.

2019ra arte. Dena den, Mercosurreko ez-nazionalentzat amnistiak egiten jarraitu zen, hala nola, 2013 eta 2018 urte bitartean senegaldarrentzat eta dominikarrentzat, 2014an Siriako errefuxiatuentzako bisa humanitarioak<sup>65</sup> edo 2019an Venezuelako herritarrentzat<sup>66</sup>. Horrela, Argentinak herritarren eta etorkinen eta haien familien arteko berdintasunezko sarbidea bermatzen du, gizarte-zerbitzuak, ondasun publikoak, GSren babesa, osasuna, hezkuntza, justizia, lana eta enplegua babesteari eta eskubideari dagokionez. Hori dela eta, Argentina erregularizazioen adibide errepikakorra da (Fundación PorCausa, 2021).

Eskualde honetan influentzia nabarmena duen beste herrialde bat Ekuador litzateke. Urte honetako ekainean herrialdeko Gobernuak Venezuelan jatorria duten migrante irregularren erregularizazioaren berri eman du, Ekuadorren egoera irregularrean 300.000 venezuelar inguru bizi direla egiaztatu eta gero. Horren bitartez herrialdean 2022ko ekainaren 3a baino lehen modu erregularrean sartu diren venezolarren Venezuelako Herritarrentzako Aldi Baterako Salbuespen Egoitza bisan parte hartzeko aukera dute, bi urteko epearekin, aldi bakar batez berriro ahal izango dena. Horren onuradunek Ekuadorren eskaintzen diren ohiko bisaren batera aldatu ahal izango dute, baldin eta hurrengo betekizunak betetzen badituzte: herrialdean modu erregularrean sartu izana, Barne Ministerioaren ardurapean egongo den migrazio-errolan inskribatzea eta aurrekari penalik edo polizialik ez izatea<sup>67</sup>.

Aztertzeko falta den kontinente bakarra Ozeania da. 1945 eta 1995 urte artean, Australiak bost milioi migratzaile baino gehiago onartu zituen, milioi erdi errefuxiatu eta desplazatutako pertsonak barne. 2001eko irailaren 1eko egitateek, Afganistango eta Irakeko gerrek, atzeraldi ekonomikoak eta SARS izurriteak eragina izan dute herrialdeko mugen kontroletan (Fundación PorCausa, 2021).

Dena den, Australiak aplikatzen duen migrazio politikan ikus daitekeen moduan, herrialde hau erregularizazioen aurka dago. Izan ere, 1980ko Australiako “azken amnistia” deiturikoak etorkizunean gobernuak erregularizazio berriak egitea eragozten duen berehalako migrazio-legedia indarrean sartu zuen. Honetan etorkin irregularren

---

<sup>65</sup> Ibidem.

<sup>66</sup> Argentinako Migrazioen Zuzendaritza Nazionala, [520/2019 Xedapena](#), urtarrilaren 29koa

<sup>67</sup> SWI: [Ecuador lanza un nuevo proceso de regularización migratoria de venezolanos](#), *swissinfo.ch*, 2022

apelazio-eskubidea ezabatu eta haien deportazioa agintzen zen, amnistia erregulatzeko migratzaileen aukera bakarra izanez. Onuradunak guztira 14.000 migratzaile izan ziren (Solomon, 1981).

Zeelanda Berria, aldiz, irekiaren adibide bat da lan-mugikortasunari dagokionez, baina migrazio irregularraren alternatiba bakarra borondatezko itzulera edo kanporatzea da, bere estatusaren edo baimenaren epea amaitu ondoren. 2008an egin zen azken amnistiak, “azken aukera” deiturikoak, Australiako immigrazio-legediaren antzekoa den araudia jarri zuen indarrean, gobernuari migratzaile irregularrak kartzelatu eta deportatzeko botere handiagoak ematen baitzizkion (Fundación PorCausa, 2021). Amnistia hau Lan Ministerioaren programa pilotua izan zen, migratzaile irregularrek beren migrazio-egoera berriz ebaluatzen duen hezkuntza-kliniketara joan zitezten. Bertan behera uzteko eta legez itzultzeko berriro eskatzeko eskatzen zitzairen migratzaileei, kanporatuei 5 urtean itzultzeko debekua aplikatu gabe<sup>68</sup>.

## 4.2. Europar Batasuneko ezohiko erregularizazio-prozesuak

2008ko Atzeraldi handiak, 2015 eta 2016ko errefuxiatuen harrera-krisiak eta populismo xenofoboen gorakadak Euopar Batasuna blindatu zuten, eta, ondorioz, programa horiek. Azken hamarkadan ia erregularizaziorik izan ez bazen ere, 2015 eta 2019 artean ia erregularizazio guztiak asilo-eskatzaileek harreragatik izan ziren, gehienak Siriako gerratik zetoztenak<sup>69</sup>.

Europako Batzordeak onartzen ditu erregularizazio-neurriak bultzatzen dituzten arrazoi praktikoak eta onurak: biztanleriaren migrazioaren kudeaketa hobea, enplegu irregularraren eta ustiapenaren aurkako borroka edo diru-sarrera publikoen igoera. Bere lurraldean migratzaileen sarrera edo irteera kudeatzeko orduan, Europar Batasunak proposatu zuen elkar erregulatzeko mekanismo bat sortzea, migratzaileen joan-etorriak saihesteko. Horregatik sortu zen 2008an Europako Migrazio Sarea (EMS)<sup>70</sup>.

---

<sup>68</sup> LINCOLN, Tal: [Dept of Labour offers amnesties to overstayers](#), *nzherald.co.nz*, 2008 (azken kontsulta: 04/2022).

<sup>69</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: [Historia de las Regularizaciones del mundo](#). Regularizaciones en la Unión Europea, *porcausa.org*, 2021

<sup>70</sup> Ibidem.

Estatu kideen artean jarrera ezberdinak daude. Alde batetik, erregularizazioak migrazio-politikaren porrota eta saihestu beharreko neurriak direla babesten duten herrialdeak aurki daitezke, Europako Iparraldeko eta Ekialdeko herrialdeak kasu. Beste aldetik, hainbestetan neurri hau martxan jartzen dituzten herrialdeak daude, 1996 eta 2008 urte bitartean guztira Europa mailan 43 erregularizazio gauzatu dituztenak. Hauen artean, besteak beste, hurrengoak aurkitzen ditugu: Luxemburgo, 1986 eta 2001 urte bitartean lau erregularizazio gauzatu dituena; Grezia, 1997-2001 urteetan milioi pertsona erregularizatu zituen; Herbehereak, Frantzia bezala, hamar erregularizazio gauzatu ditu bere historian zehar; Alemaniak 1996tik bi milioi migratzaile erregularizatu ditu, horietatik 1.3 milioi asilo eskatzaileak zirenak<sup>71</sup>.

Aipatutako azken herrialde honek baimendutako egonaldi-baimena, “*Duldung*” izeneko eskaintzen du hasiera batean herrialdea uztera behartuta dauden baina aldi baterako irten ezin diren pertsonen. Irteera ezinezkoa izango litzateke, adib., deportazioari oztupoak jartzen zaizkiolako edo pertsona Alemanian egoten jarraitzea eskatzen duten beste arrazoi batzuegatik (gaixotasun larria, identifikazio-dokumenturik eza, etab.)<sup>72</sup>. Alemanian bost urtez 2022ko urtarrilaren 1era arte bizi izan diren pertsonen, duldung estatusa daukatenean, urtebeteko egoitza-baimena lortu ahal izango dute baldintzapeko askatasunean. Betekizunak dira delitu penalik egin ez izana eta oinarrizko ordena demokratiko askearekin konprometituta egotea. Legezko estatus horrek lagunduko die denbora horretan irauteko eskubidea izateko gainerako baldintzak betetzen; bereziki, bizi-baliabideen segurtasuna eta identitate-proba.<sup>73</sup>

Azaldutakoez gain, Italiak amnistia ugari gauzatu ditu bere historian zehar, 1986an, 1990an, 1995an, 1998an, 2002an, 2009an 2012an eta azkena, 2021an, nekazaritza eta etxeke sektoreari eragin ziona, COVID-19 egoera dela eta (Bautista & Macías, n.d.). Dena den, Italia ez da izurriteak eragindako erregularizazio prozesua martxan jarri duen herrialde bakarra. Frantziak, adib., osasun-krisian lehenengo lerroan egon diren atzerritar langileen erregularizazioa gauzatu zuen 2020. urtean, osasun-langileak, zaintzaileak, haurtzaindegitaro langileak, kutxazainak, etab. barne hartzen zituen.

---

<sup>71</sup> BAUTISTA, José, MACÍAS, Patricia: [Cinco buenas razones para aprobar una regularización extraordinaria de migrantes sin papeles](#), *porcausa.org*, 44-45 orr.

<sup>72</sup> HANDBOOK GERMANY: [Tolerated Stay](#) (“Duldung”), 2020 (azken kontsulta: 06/2022).

<sup>73</sup> UMER: [Germany to give Visas to Duldung Status Holders](#), *Visa Guru*, 2021 (azken kontsulta: 06/2022).


Greziak, era berean, nekazaritza eskulan eskasiari aurre egiteko, salbuespenezko lan-baimen bereziengatik sei hilabeteko luzapen automatikoa eskaini zien hirugarren herrialdeetako agiririk gabeko herritarrei, nekazaritzan soilik lan egin dezaten premiazko beharrianei erantzuteko. Azkenik, Portugalek 2020an Atzeritarren eta Mugen Zerbitzuan inskribatutako guztien aldi baterako erregularizazioa martxan jarri zuen COVID-19 egoera zela eta<sup>74</sup>.

### 4.3. Espainiako aurreko ezohiko erregularizazio-prozesuak

Espainia Italiarekin batera Europar Batasuneko herrialdea da hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, kontuan hartu beharra dago Espainiako igarotze- eta helmuga-herrialdeetarako emigranteen bilakaera azken berrogei urteetan, honetan bere kokapen geografikoak zein Latinoamerikako herrialdeekiko lotura historikoak garrantzi handia izanez. Beste aldetik, herrialdean dagoen kalifikazio gutxiko eskulanaren eskaera handiari ekonomia informaleko poltsa handia gehitzen zaio. Azkenik, garrantzia ematen zaio Espainiak dituen legezko bide urriei eta kontrol- eta itzulera-politika ez eraginkorrari<sup>75</sup>.

Guzti hau kontuan hartuz, Espainiak bere historian zehar zortzi erregularizazio-prozesu burutu ditu, 1986an, 1991n, 1992an, 1996an, 2000n, 2001an, 2005ean eta 2020an. Erregularizazio hauek alderdi ezberdinetako gobernuek eraman dute aurrera, hala nola, gobernu sozialistekoak, Alderdi Popularreko gobernuak eta koalizio-gobernuak.

*Grafika III: Espainiako historiako erregularizazioak*



*Iturria: Fundación PorCausa, 2021*

<sup>74</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las Regularizaciones...UE, zit., 2021.

<sup>75</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: [Historia de las Regularizaciones del mundo](#). Regularizaciones en España, *porcausa.org*, 2021.



1986. urtean PSOE alderdiaren eskutik aurrera eramandako erregularizazioa uztailaren 1eko 7/1985 Lege Organikoari men eginez burutu zen, atzerritarren eskubide eta askatasunei buruzkoa<sup>76</sup>. Izan ere, aipatutako LO-ren bigarren xedapen iragankorrek aukera eman zuen Espainian “behar bezala dokumentatu gabe” zeuden atzerritarrek, Legea indarrean sartzen zen egunean, beren egoera erregularizatzeko. Horretarako, atzerritarrek edo enplegataileek beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko zuten, aipatutako egunetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epean. Guztira 44.000 eskari jaso ziren, horietatik erregulatzeko 23.000 onartu zirelarik, eskarien %52a suposatzen duena<sup>77</sup>.

Berriz, 1991. urtean, PSOE-k ekainaren 7ko Idazkaritzaordearen ebazpenean oinarrituz beste erregularizazio prozesu bat martxan jarri zuen. Honen helburua irregularitatearen aurkako eta migranteen integrazioaren aldeko neurriak hartzea izan zen, erregularizaziora sarbidea izateko hurrengo betekizunak eskatzen zirelarik: lan-eskaintza irmo erregularra eta egonkorra izatea edo norberaren konturako jarduera-proiektu iraunkor eta bideragarria izatea<sup>78</sup>. Erregularizazio-prozesu honen onuradunak 109.135 migratzaile izan ziren, 135.393 eskari jaso eta gero; eskarien %81a erregularizatu izana suposatzen duena<sup>79</sup>.

Jarraituz, 1991 eta 1992 urte bitartean familiarren erregularizazioa martxan jarri zen gobernu sozialistaren eskutik. Horretarako, eskatzen zen 1991ko erregularizazio-prozesuaren bidez erregularizatu zen atzerritar baten familiarra izatea<sup>80</sup>. Honen bidez, 3.000 senide inguru erregularizatu ziren, administrazioaren aurreikuspenekin bat ez zetorren kopurua, azken honen aurreikuspenen arabera 10.000 etorkin inguru erregularizatzea espero baitzen<sup>81</sup>.

---

<sup>76</sup> Ibidem.

<sup>77</sup> LAWRENCE, Huang, LEVINSON, Amanda: [Why Countries Continue to Consider Regularization](#), *Migration Policy Institute*, 2005 (azken kontsulta: 05/2022).

<sup>78</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las Regularizaciones...España, zit., 2021.

<sup>79</sup> LAWRENCE, Huang, LEVINSON, Amanda: Why Countries continue... zit., 2005.

<sup>80</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las Regularizaciones...España, zit., 2021.

<sup>81</sup> DUVA, Jesús: [El Gobierno sólo ha legalizado a 3.000 familiares de inmigrantes en España](#), El País, 1992

Alderdi Popularrak aurrera eramandako lehen erregularizazio-prozesua, aipatu bezala, 1996. urtekoa izan zen, Atzerritartasunari buruzko bigarren erregelamenduaren arabera burutu zena. Horretarako, 1986ko maiatzaren 26a baino geroago bizileku-baimen baten edo egoitza-baimen baten titularra izatea eskatu zen, betekizun hau betez Espainiako estatuan bizitzen 5 urte egoteko baimena eskuratzen zelarik<sup>82</sup>. Guztira 25.000 eskari jaso ziren, horietatik 21.300 migratzaile erregularizatu zirelarik, eskarien %85a suposatzen duena<sup>83</sup>.

2000. urtean Espainian Alderdi Popularraren eskutik beste erregularizazio-prozesu bat jarri zen martxan. Hau urtarrilaren 11ko atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren zein otsailaren 18ko 239/2000 Errege Dekretuaren arabera burutu zen. Horretarako, gerora sortutako irregulartasunean egotea eskatzen zen ("*irregularidad sobrevenida*"), ukatutako asilo-eskaeren eta senideen estatusaren legitimitatea galdu izanagatik. Gainera, kanporatzeko arrazoietan ez egotea exijitzen zitzaion eskatzaileari. Baldintzak beteta, onuradunak lan- eta egoitza-baimena edo egoitza-baimena soila eskuratzen zuen<sup>84</sup>. Guztira 247.598 eskarietatik 153.443 migratzaile irregulartasunetik erregularitatera pasa ziren, eskarien %62a suposatzen duena<sup>85</sup>.

Hurrengo erregularizazio-prozesua 2001. urtean burutu zen Alderdi Popularraren aldetik, berriz aztertzeko prozesu bat izan zena. Azken hau otsailaren 16ko 142/2001 Errege Dekretuaren arabera burutu zen, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei zein haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa erreformatzen duen abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoaren laugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako erregularizaziorako baldintzak ezartzen zituena. Eskaera egiteko, Espainian momentuan zeuden atzerritarrek izan beharko ziren, 239/2000 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren babesean erregularizazio-eskaera aurkeztu eta ezezkoa jaso zutenak, 1999ko ekainaren 1a baino lehen Espainian egoteko baldintza ez betetzeagatik<sup>86</sup>. Erregularizazio prozesu hau lortu zen etorkinen kolektibo ezberdinen

---

<sup>82</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las Regularizaciones...España, zit., 2021

<sup>83</sup> LAWRENCE, Huang, LEVINSON, Amanda: Why Countries continue... zit., 2005.

<sup>84</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las Regularizaciones...España, zit., 2021

<sup>85</sup> LAWRENCE, Huang, LEVINSON, Amanda: Why Countries continue... zit., 2005.

<sup>86</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las Regularizaciones...España, zit., 2021

borrokaren ondorioz. Bartzelonan, Murtzian, Andaluzian eta estatuko hainbat tokitan itxialdiak, grebak eta manifestazioak burutu ziren paperak denontzat aldarrikatuz. Horrela, BARBEROren ikerketak azaltzen duen bezala<sup>87</sup>, “paperik gabeko” migratzaile hauek nolabait arauketan parte hartzea lortu zuten. Mariano Rajoy garai hartako Barne ministroak Enrique Múgica herriaren defendatzailearekin batera egindako prentsaurreko batean aitortu zuenez, 2001eko urtarrilaren 23az geroztik itxialdiak egin zituzten etorkin-taldeei aplikatu zitzaizkien sustraitze- edo arrazoi humanitario eta egonaldi-kriterioak Estatu osora zabalduko ziren malgutasun handiearekin, gerora 2001eko ekaineko ezohiko erregularizazioa deitu izan zaion horretan hain zuzen ere. Oraingoan osotara 350.000 eskatzaile egon ziren, horietatik 221.083 migratzailek lan-eta egoitza-baimena edo bakarrik egoitza-baimena eskuratu zutelarik, %63a hain zuzen ere<sup>88</sup>.

Horrez gain, aipatutako urte berean Espainia eta Ekuadorren arteko immigrazio-akordioa burutu zen, “*Operación Ecuador*” bezala ezagututakoa. Azken hau Ekuadorreko langileen esplotazioa saihesteko eta hauen egoera erregularizatzeko egin zen, salbuespen bat eginez bizileku- eta lan-baimena lortzeko Ekuadorrera bidaiatzeko betebeharrari dagokionez. 24.884 eskatzaileetatik, 21.749 ekuadortarrek ez zuten Ekuadorrera bidaiatu behar izan, Gobernuak ezarritako salbuespenei heldu baitzieten. Aldiz, 3.135 beren herrialdera joan behar izan ziren, pertsona horientzako alternatiba bakarra kanporatzea zelako. Horietatik 2.603 Espainiara itzuli ziren eta 532k ez zuten nahi izan<sup>89</sup>.

Azkenik, 2001. urtean ere, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoaren 31.4. artikuluari men eginez, bileku-baimena edukitzeko aukera zabaldu zen sustraitzearen bidetik (“*arraigo*”). Prozesu honen onuradunek aldi baterako bizilekua eskuratzen zuten, arrazoi humanitarioak, salbuespenezkoak eta sustraitzekoak direla eta<sup>90</sup>. Guztira 346.166 eskaera jaso zituen Gobernuak, 122.310 eskari onartu zirelarik<sup>91</sup>.

---

<sup>87</sup> BARBERO GONZÁLEZ, Iker: [Las movilizaciones de los inmigrantes sinpapeles y su incidencia sobre los procesos extraordinarios de regularización](#), *Rivista quadrimestrale fondata de Renato Trevez*, 2010, 145-170 orr.

<sup>88</sup> LAWRENCE, Huang, LEVINSON, Amanda: Why Countries continue... zit., 2005.

<sup>89</sup> Delegación del Gobierno para la Extranjería y la Inmigración: [Balance 2001](#), 2002

<sup>90</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las Regularizaciones... España, zit., 2021

<sup>91</sup> Delegación del Gobierno para la Extranjería y la Inmigración: Balance 2001, zit., 2002

2005. urtean Zapateroko Gobernu sozialistak Espainian burutu den erregularizazio prozesu handiena gauzatu zuen, Atzerritartasun Erregelamendua onartzen duen 2393/2004 Errege Dekretuaren arabera egin zena. Honen helburuak, beste batzuen artean hurrengoak izan ziren: ekonomia informalaarekin amaitzea, lehia desleialarekin amaitzea, diru-sarrera fiskalak eta kotizazio sozialak handitzea eta enpleguaren bidez integrazioa sustatzea. Kudeaketari dagokionez, bide legalak zabaltzea merkatuaren beharren arabera eta mugako kontrola handitzea lortu nahi izan zen, Frontex europar agentziaren laguntzarekin. Prozedura honetan bi eskaera mota bereizi ziren. Alde batetik, enplegatzaileek migratzaileen izenean aurkezten zituztenak, enplegatzaileari lan-arloko eta Gizarte-Segurantzako legediaren arabera jarduteko konpromisoa hartzea behartzen ziona. Beste aldetik, migratzaileek berek aurkeztutakoak, adib., lanaldi partzialeko kontratuen, norberaren konturako kontratuen eta abarren kasuan<sup>92</sup>. Guztira 550.000 pertsona erregularizatu ziren. Lehenengo eskari mota aurkeztuta erregularizatu zirenen %33a baino gehiago etxeko zerbitzuan lan egiten zuen, eta gehienak Hego Amerikako herrialdeetatik zetozen. Bigarren eskari motari dagokionez, gehiengoa erdialdeko eta ekialdeko Europatik zetorren, Saharaz Hegoaldeko Afrikan jatorria zuten migratzaileak gutxiengoa osatuz<sup>93</sup>. Europako Kontseiluaren ustez, 550.000 onuradun izan zituen 2005eko erregularizazioak arrakasta handia izan zuen hurrengo arrazoiengatik: gizarte-indarren adostasunetik sortu zen (governua, sindikatuak, patronala, gizarte zibila eta erakunde autonomikoak), alde interesdun guztien benetako erregularizazio-eskaria zegoen eta lan-merkatuaren zein gizartearen beharrei erantzuten zion. Erregularizazio honen ondorioz, 550.000 pertsona irregulartasunetik atera eta GSn inskribatu ziren, horren ondoriozko zerga-sarrerekin eta gizarte-ekarpenekin. Enplegatzaileengan ere eragin positiboa izan zuen, eta kontratazio erregularra egiten hasi ziren, ikuskapenen eta isunen mehatxuaren aurrean<sup>94</sup>.

Covid-19aren aurrean PSOE eta Podemos-eko gobernuak, EB-ko beste estatu kideek egin zuten moduan, hainbat neurri hartu zituen nekazaritza sektorean, alarma-egoeran sasoikako langileen irregulartasuna saihesteko. Horretarako, apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretua argitaratu zen, nekazaritzako enpleguaren arloan presazko neurri

---

<sup>92</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las Regularizaciones...España, zit., 2021

<sup>93</sup> Committee on Migration, Refugees and Population: [Regularisation programmes for irregular migrants](#), 2007 (Doc. 11350)

<sup>94</sup> GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las Regularizaciones...España, zit., 2021

jakin batzuk hartzen zituena. Hartutako neurriak hurrengoak izan ziren: alarma-egoeran iraingitako lan-baimenen luzapen automatikoa, irailaren 30era arte nekazaritza-sektorean sartu ahal izateko; nekazaritzaren sektorean bizitzeko eta lan egiteko eskubidea, babestutako gazte ohiei dagokionez (18-21 urtekoei); eta 7.050 langile marokoarren kontratu-luzapena aplikatu zen, fruitu gorrien uztarako “*contratación de origen*” izeneko urteko programarekin iritsitakoak. Pandemiaren aurkako neurriek, dakigunez, ondorio suntsitzaileak izan zituzten migratzaileentzat, baina gizarteari egiten dioten ekarpena eta produkziozko zein zaintzako sistema ekonomikoari funtzionatzeko aukera ematen dioten funtsezko zerbitzuak ikusartzeko ere balio izan du. Covid-19aren lehenengo urtean ere, 2020an, koalizio-gobernuak apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege-Dekretuari men eginez nekazaritzako enpleguan tutoretzapean zeuden gazte oihen erregularizazioa martxan jarri zuen, hauen integrazioarako zein osasun-krisiaren funtsezko sektoreei laguntza emateko. Honen bitartez lan egiteko eskubidearen luzapen automatikoa eskuratzen zuten onuradunek. Baimenak bi urteko indarraldia du, beste bi urtez berritzeko aukera izanez, eta lurralde nazional osoan balio du, herrialdearen lan-egoera edozein dela ere<sup>95</sup>.

Amaitzeko, PSOE eta Podemos alderdien koalizio-gobernuak Atzerritartasun Erregelamenduaren erreforma burutu zuen urriaren 19ko 903/2021 Errege Dekretuaren bitartez, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei zein haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua aldatzen duena. Erreformak Espainian bizitzeko eta lan egiteko baimenak erraztuko ditu 15.000 atzerritar arte, 8.000 adingabe migratzaile eta tutoretzapean zeuden 18 eta 23 urte bitarteko 7.000 gazteri hain zuzen ere. Horrela<sup>96</sup>, gazte migratzaileak babesik gabe geratzea eta adin nagusitasuna betetzean irregulartasunean erortzea saihestuko da.

#### **4.4. 2022ko #RegularizaciónYa herri-ekimen legegilea**

RegularizaciónYa izeneko mugimendua migratzaileen eskubideen aldeko kolektiboek eta erakundeek osatutako mugimendu estatala da, migratzaileen eskubide sozial,

---

<sup>95</sup> Ibidem.

<sup>96</sup> Ibidem.

politiko eta ekonomikoen alde borrokatzen duena Espainiako estatuaren baitan<sup>97</sup>. Horrez gain, hurrengo lerrotan azalduko den herri ekimen legegilearen garrantziaz jabetzen diren eta RegularizaciónYa mugimendu politiko gisa indartzeko ekarpena egin nahi duten pertsona eta erakunde ez migratzaileek babesten dute. Honako hauek ere osatzen dute aipatutako mugimendua: Fundación para la Ciudadanía Global, Por Causa fundazioa, REDES, Alianza para la Solidaridad eta Por un Mundo Más Justo alderdiak<sup>98</sup>.

Mugimendu honen partaideek 2022. urtean herri-ekimen legegilea bultzatu dute Kongresuan modu irregularrean dauden migratzaileen erregularizazioa bultzatzeko. EKK herritarrek araugintza-prozesuan parte hartuko dutela aurreikusten du, adin nagusi espainarren 500.000 sinadura aurkeztuz herria legegintza-ekimenaren subjektu gisa aurkeztzen delarik. Herri-ekimen legegilearen onarpen konstituzional horrek aukera ematen du, alde batetik, subiranotasunaren titularrak zuzenean parte har dezan herritarren bizitza arautzen duten arauak egiteko zereginean, eta, bestetik, aukera ematen du botere legegileari hautesleriaren beharrianak babesten dituzten arauak onartzea proposatzeko bideak irekitzeko<sup>99</sup>. Konkretuki, Konstituzioaren 87.3. artikulua espainar nazionalitatea duten herritarren beharrezko sinadura-kopurua (500.000) eta herri-ekimen legegilearen mugak (lege organikoa, zerga-arlokoa, nazioarteko mailakoak eta graziazko prerrogativa) ezartzen ditu hurrengoa jasoz:

“Una ley orgánica regulará las formas de ejercicio y requisitos de la iniciativa popular para la presentación de proposiciones de ley. En todo caso se exigirán no menos de 500.000 firmas acreditadas. No procederá dicha iniciativa en materias propias de ley orgánica, tributarias o de carácter internacional, ni en lo relativo a la prerrogativa de gracia”

Beraz, Herri Ekimen Legegilea Estatuak emandako zuzeneko demokrazia-mekanismo bat da. Herri Administrazioen Legearen bidez, herritarrek legeak proposa ditzakete, Diputatuen Kongresuan aintzat hartu, eztabaidatu eta onar daitezten; onarpen hori

---

<sup>97</sup> RegularizaciónYa: [¿Conoces el movimiento #RegularizaciónYa?](#), 2022. (azken kontsulta: 05/2022).

<sup>98</sup> RegularizaciónYa: [¿Conoces el movimiento #RegularizaciónYa?](#), sobre la ILP, 2022. (azken kontsulta: 05/2022).

<sup>99</sup> Junta Electoral Central: [Iniciativa Legislativa Popular](#), 2014 (azken kontsulta: 05/2022).

loteslea izango da. Kasu honetan, herri-ekimen legegilearen helburua da milioi erdi migratzaile ingururentzat, horietako herena adingabeak izanda, administrazio-erregularizazioa lortzea, eta, horrela, bizileku- eta lan-baimena lortzea<sup>100</sup>.

Zehazki, Herri Ekimen Legegile honek eskatzen duena hurrengoa da<sup>101</sup>:

1. Ezohiko erregularizazio zabala eta premiazkoa, iraunkorra, Espainiako Estatuan administrazio-egoera irregularrean dauden pertsona guztientzat.
2. Martxan jarriko den prozesuak migratzaileak eskubideen subjektu gisa erdigunean kokatzea, haien sarbidea eta sustapena bermatuz.
3. Izapidetzen ari diren asilorako eta nazioarteko babeserako eskabide eta espediente guztien aldeko eta berehalako ebazpena.
4. Probintzietako Atzerritartasun Bulegoetan aurkeztutako bizileku- eta lan-baimenen aldeko ebazpena, ebazpenaren zain edo administrazio-errekurtsoen bidean daudenak.
5. Egoitza eta lana berritzeko aurkeztutako edo datozen hilabeteetan aurkeztu beharreko eskabideen aldeko ebazpena, kotizatutako gutxieneko aldiak alde batera utzita eta indarrean dagoen lan-kontratu bat aurkeztu beharrik gabe, hala badagokio.
6. Familia-bizitzarako eskubidearen lehentasunezko kontsiderazioa, Espainiako Estatuan edo hortik kanpo jaiotako adingabeak berriz elkartzeko eta bizitzeko izapideetan, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritako giza eskubideen estandarren arabera.
7. Hasierako erregimen komunitarioan eta/edo iraunkorrean Europar Batasuneko senidearen bizilekurako baimen-eskaeren aldeko ebazpena. Bereziki Espainiako edo Europako Erkidegoko senidearen baliabide ekonomikorik ez egiaztatzeagatik izapidea ez ukatzea.
8. Atzerritarren Barneratze Zentroetan barneratutako pertsona guztiak berehala askatzea, itzultze- eta kanporatze-espedienteak artxibatzea eta zentro horiek behin betiko ixtea.

---

<sup>100</sup> RegularizaciónYa:¿Conoces el movimiento...?, zit., 2022.

<sup>101</sup> RegularizaciónYa: [Carta de demanda al gobierno](#), 2022 (azken kontsulta: 05/2022)

9. Ceuta eta Melillako Etorkinentzako Aldi Baterako Egonaldi Zentroetan (CETI) dauden pertsonak lehenbailehen lekualdatzea, haien osasuna eta eskubideak bermatzeko.
10. Ceuta eta Melillara iristen diren pertsonen beroan eta/edo espresean egiten zaizkien itzulketak amaitzea, eta modu seguruan eta azkarrean eramatea penintsulara, benetako harrera-baliabide bat bermatuz.
11. Erreferente heldurik ez duten haur/gazte migratzaileentzat, laguntza ekonomikoa eta gizarte- eta hezkuntza-arlokoa bermatzea, helduaroko autonomiarako trantsizioan. 18 urte betetzean erregularizatu ez bada, lana zein egoitza baimenaren atzeraginezko esleipena, babesgabezia-deklarazioaren hasiera-egunetik hasita.
12. Espainiako Estatuko segurtasun-indarrek arrazaren profil etnikoaren araberako identifikazioan oinarritutako atxiloketa amaitzea.

Herri ekimen legegile honek, ekimen-testuak aurreikusten duen moduan<sup>102</sup>, Espainiako ordenamendu juridikoa errespetatzen du, eta ez dio eragiten lege organiko bitartez arautzeko erreserbatuta dauden gaiei. Herri Ekimena arautzen duen 3/1984 Lege Organikoan eta EKren 87.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, lehen azaldu den moduan, ez da legegintzako herri-ekimenik onartzen lege organikoari dagozkion gaietan. Bestalde, 81. artikulua ezartzen du lege organikoak direla, besteak beste, oinarrizko eskubideen garapenari buruzkoak<sup>103</sup>, EKk 15. artikulutik 29. artikulura bitartean ezartzen dituenak hain zuzen ere.

Aipatutako proposamena atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren lehenengo xedapen iragankorra artikulua bakar batean aldatzera mugatzen da<sup>104</sup>. Xedapen iragankor horrek ez du izaera organikorik, ez baitu arautzen EKren 15-29 artikuluetan zerrendatzen diren oinarrizko eskubideetako bat bera ere; azken xedapenetako laugarrenak izaera ez organikoa egokitzen dio aipatutako aruari.

---

<sup>102</sup> RegularizaciónYa, PorCausa, Actionaid, et al.: [Iniciativa Legislativa Popular para una Regularización extraordinaria de personas migrantes en España](#), esenciales.info, 2022, 4 orr.

<sup>103</sup> 1978ko Espainiako Konstituzioa, 81. art

<sup>104</sup> RegularizaciónYa, PorCausa, Actionaid, et al.: Iniciativa Legislativa Popular... zit., 2022, 4. orr



Beraz, xedapen iragankorraren izaera ez organikoak herri ekimen legegilearen bitartez aldatzea ahalbidetzen du. Jatorrizko xedapen iragankorrak Gobernuari agintzen zion ezohiko erregularizaziorako prozedura bat ezartzea, Gobernuak 239/2000 Errege Dekretuan dekretatu zuena<sup>105</sup>. Proposatzen den aldaketak, datak aldatzen ditu, eta berriro eskatzen dio Gobernuari erregularizazio berri baterako prozedura berri bat ezartzeko. Hau kontuan hartuz, hurrengo moduan geratuko litzateke aipatutako xedapena<sup>106</sup>:

“Disposición transitoria primera. Regularización de extranjeros que se encuentren en España. El Gobierno, mediante Real Decreto, establecerá, en el plazo de 6 meses, un procedimiento para la regularización de los extranjeros que se encuentren en territorio español antes del día 1 de noviembre de 2021” .

Xedapenaren eduki berriak izaera ez organikoa mantentzen du, eta, horrez gain, izaera iragankorra mantentzen du, une jakin batean agindu bat ezartzen jarraitzen baitu, lege-aldaketa iraunkorra izan gabe<sup>107</sup>. Bestalde, ekimen honek errespetatzen ditu 4/2000 Lege Organikoak ezarritako erregelamendu-erreserbak, ez baitago inolako erreserbarik Gobernuari erregularizaziorako erregelamendu-prozedura bat ezartzea legez galarazteko. Gainera, azpimarratu beharra dago, nahiz eta tradizionalki Espainiako Gobernuak egindako ezohiko erregularizazioak arau-aldaketen ondorioz gertatu diren, ez dagoela beste egoera batzuetan erregularizazioa eragozten duen lege-agindurik. Arrazoi guzti hauek direla eta, ulertu behar da herri-ekimen legegile honek Gobernuari agindu ahal izan behar diola ezohiko erregularizaziorako erregelamendu-prozedura bat ezartzea.

Azkenik, herri ekimen legegilea aurkezten duen testuarekin jarraituz<sup>108</sup>, proposamen hau bat dator Espainia partaide den nazioarteko akordio eta ekimenekin. Horien artean daude Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda (10. helburua), Migrazio

---

<sup>105</sup> Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Lehenengo Xedapen Iragankorra: “*El Gobierno, mediante Real Decreto, establecerá el procedimiento para la regularización de los extranjeros que se encuentren en territorio español antes del día 1 de junio de 1999 y que acrediten haber solicitado en alguna ocasión permiso de residencia o trabajo o que lo hayan tenido en los tres últimos años*”.

<sup>106</sup> RegularizaciónYa, PorCausa, Actionaid, et al.: Iniciativa Legislativa Popular... zit., 2022, 5. orr.

<sup>107</sup> RegularizaciónYa, PorCausa, Actionaid, et al.: Iniciativa Legislativa Popular... zit., 2022, 4-5 orr.

<sup>108</sup> Ibidem.

Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Ituna eta indarrean dagoen Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna, 2008. urtean sinatuta.

## 5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Erregularizazio-prozeduren kontzeptua, eraentza juridikoa eta Espainiako zein herrialde ezberdinen esperientzia praktikoak ikusita, egindako lanetik honako ondorio hauek atera daitezke:

1. Espainia munduan migratzaile irregular gehien dituzten hogeit hamar herrialdeen artean dago, horrek migrazio irregularraren kontrola errazteko neurriak hartzeko betebeharra ekartzen diolarik estatuari, horietako neurri bat pertsona horien erregularizazioa izanik. Prozesu honen abantailak frogatuta geratu dira lan honetan, Europar Batasuneko zenbait herrialdeek ideia hau kontrajartzen duten arren. Izan ere, egoera irregularrean dauden atzerritarrak ezkutuko ekonomiaren eragile nagusiak direla kontuan hartuz, hauen egoera erregularizatzeak eta lan-merkatuan integratzeak zerga-bilketa areagotu eta Gizarte Segurantzako ekarpenak handitzen ditu, estatuari zein herritarrei onurak ekarriz. Bestetik, lan-esplotazioa jasateko aukerak murrizten dira eta migrazio irregularrari buruzko datu zehatzak eskuratzeko bidea irekitzen du mekanismo honek. Azkenik, migratzaile irregularrak agintarien zein herritarren aldetik diskriminazioa jasateko aukera handiagoa dutela jakinik, prozedura honen bitartez estatu justuago, seguruago eta errespetuzkoago batean bizitzeko aukera emango lieke.
2. Gaur egun lan-sustraitzearen prozeduran islatzen den bezala, migrazio arloan, erregularizazio-prozeduretan bereziki, lege azpiko eta erregelamendu azpiko arauak gehiegizko garrantzia hartzen dute. Horrek segurtasun juridikoan ondorio negatiboak dakartza, informazio argia eta prozeduraren betekizunak zehaztutak ez egoteak erabaki kontraesankorrak zein erabaki arbitrarioak hartzea errazten baitu, pertsonaren, herritarraren eta agintarien kaltetan.
3. Doktrinak proposamen ugari egin ditu Europar Batasun mailan migrazio-fluxuak eta hauen ondorioak modu bateratu batean kontrolatzeko. Izan ere, garatu den ideietako bat migrazio arloan Europar Batasuneko legedi bateratu bat egitea izan da. Izan ere, 2005. urtean FRATTINI ren<sup>109</sup> proposamena ordenamendu juridiko

---

<sup>109</sup> *Europar Batasunean asilo eta immigrazio arloko informazio-sistema, zeinaren bitartez estatu kideei behartzen zaie beste estatuei eragiten dieten asmoei edo erabakiei buruz informatzeko*

komunitarioan indarrean sartu zenetik, argi geratu da irregulartasunaren kudeaketako hainbat gai, erregularizazio mekanismoak kasu, Europako markoan lantzeko beharra dagoela<sup>110</sup>.

Lanean azaldu den moduan, herrialdeek erregularizazioari begira duten posizio ezberdinak direla eta, zaila da Europar Batasun mailan erregularizazio eredu bateratu bat egitea. Dena den, nazioarteko mailan erregularizazio-mekanismoen eraginkortasuna ikusita, oso zaila da Europar Batasunean mekanismo hori ezabatu nahi izatea, ideien gatazka konpontzeko alternatibarik onena legedi komuna sortzea litzatekeelarik. Irtenbide honek erregularizazio masiboen aurkako herrialdeak lasaitzeaz gain, erregularizazio-programak immigrazioa kudeatzeko tresna direla onartzea ekarriko luke (Ferrero & Pinyol, 2008). Horrez gain, Europako legeri komun batek segurtasun juridikoa dakar, bai estatu kideentzat, bai erregularizazioaren eskatzaileentzat, eta informazio argia, zehatza eta osoa eskaintzen du izapideak eta prozesua errazteko.

4. Gaur egun, Espainiako aurreko esperientzietan eta hauen arrakastan oinarriturik, RegularizaciónYa Mugimenduak herri ekimen legegile bat bultzatu du egoera irregularrean dauden migratzaileak erregularizatzeko. Hainbat erakundeek proposatutako ekimen berri honek migrazio irregularrari dagokionez, Espainiako estatuaren egungo problematika jarri du jomugan, premiazko ezohiko erregularizazioa eskatu egiten duelarik pertsona horiei bizitza duina eskaintzeko.

---

<sup>110</sup> FERRERO, Ruth, PINYOL, Gemma: ¿Cómo gestionar la inmigración irregular? Los procesos de regularización en la construcción de una política europea de inmigración., *Revista de Estudios Políticos (nueva época)*, 2008, 164-166 orr.

## 7. BIBLIOGRAFIA

### a) Arauak

- **Nazioarteko araudia**

- Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Ituna.

- **Europar Batasuneko araudia**

- Azaroaren 28ko Kontseiluko 2002/90/CE, legez kanpoko etorkinei sartzen laguntzeko delituaren definizio komuna ezartzen eta zirkulazio zein egonaldi irregularrak arautzen dituen.
- Apirilaren 29ko Kontseiluaren 2004/81/CE Zuzentaraua, giza salerosketaren biktima diren edo legez kanpoko immigrazioari laguntzeko ekintza baten xede izan diren hirugarren herrialdeetako nazionalen egoitza-baimena emateari buruzkoa, agintari eskudunekin lankidetzan jarduten badute.
- 2008ko abenduaren 16ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/115/EE Zuzentaraua, egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako herritarrak itzultzeko estatu kideetako arau eta prozedura komunei buruzkoa.
- Ekainaren 18ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2009/52/CE Zuzentaraua, egoera irregularrean dauden migratzaileen enplegu-emateari aplikatu beharreko zehapenak eta neurriak arautzen dituen.
- Apirilaren 5eko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2011/36/UE Zuzentaraua, gizakien salerosketaren aurkako prebentzioaren eta borrokari zein biktimaren babesari buruzkoa.

- **Espainiako araudia**

- 1978ko Espainiako Konstituzioa.
- Herri ekimen legegileari buruzko 3/1984 Lege Organikoa, martxoaren 26koa.

- Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei zein haien gizarteratzeari buruzko
- Apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei zein haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena, 2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren.
- Urriaren 1eko Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea
- Apirilaren 28ko 497/2020 Errege Dekretua, Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena.
- 1/2021 Instrukzioa, lan-sustraitzearen ondoriozko aldi baterako bizileku-baimenei buruzko prozedurari buruzkoa.

## **b) Jurisprudentzia**

### **• Europar Batasuneko Jurisprudentzia**

- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Laugarren Salako 2015ko apirilaren 23ko epaia, C-38/14 auzia ebazten duena.
- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Seigarren Salako 2020ko urriaren 8ko epaia, C-568/19 auzia ebazten duena.

### **• Espainiako Jurisprudentzia**

- 2021ko martxoaren 25eko Auzitegi Goreneko 452/2021 epaia (ECLI: ES: TS: 2021: 452).
- 2021ko apirilaren 29ko Auzitegi Goreneko 559/2021 epaia (ECLI: ES: TS: 2021: 559).
- 2021ko maiatzaren 6ko Auzitegi Goreneko 643/2021 epaia (ECLI: ES: TS: 2021: 643).

## **d) Doktrina**

- ARRESE IRIONDO, MARÍA NIEVES: La revocación de la sanción de expulsión a personas extranjeras en situación irregular en territorio estatal, *Revista Española de Derecho Administrativo*, 359-382 orr.

- Background and Rapid Assessment, *International Labour Office*, 2015, 51. orr.
- BARBERO GONZÁLEZ, Iker: Las movilizaciones de los inmigrantes sinpapeles y su incidencia sobre los procesos extraordinarios de regularización, *Rivista quadrimestrale fondata de Renato Trevez*, 2010, 145-170 orr.
- BAUTISTA, José, MACÍAS, Patricia: Cinco buenas razones para aprobar una regularización extraordinaria de migrantes sin papeles, *porcausa.org*, 54 orr.
- CÁCERES, Francisco de Cominges: El tribunal de Justicia de la UE valida la normativa española que prima la sanción de las situaciones de permanencia irregular de extranjeros con multa antes que expulsión, *Diario La Ley*, 2022 (azken kontsulta: 06/2022).
- Committee on Migration, Refugees and Population: Regularisation programmes for irregular migrants, 2007 (Doc. 11350)
- DÜVELL, Franck: *Clandestine migration in Europe*, SAGE, 2008, 20. orr.
- FANJUL Gonzalez, GÁLVEZ-INIESTA, Ismael: Extranjeros, sin papeles e imprescindibles. Una fotografía de la inmigración irregular en España, *Investigación PorCausa*, 2020, 20. orr.
- FAVIERES, Paloma, FANJUL, Gonzalo, LÓPEZ SALA, Ana: *Análisis de los Procesos de Regularización en España*, Universidad de Comillas, 2021
- GONZÁLEZ BEILFUSS, Markus, KOOPMANS, Julia: Legal pathways to regularisation of illegally staying migrants in EU Member States, *ADMIGOV*, 2021, 34. orr
- LAWRENCE, Huang, LEVINSON, Amanda: Why Countries Continue to Consider Regularization, *Migration Policy Institute*, 2005 (azken kontsulta: 05/2022).

- MEN JI KIM: The Republic of Korea's Employment Permit System (EPS)
- PÉREZ GONZÁLEZ, Carmen: Migraciones Irregulares y Derecho Internacional.. Gestión de los flujos migratorios, devolución de extranjeros en situación administrativa irregular y Derecho Internacional de los Derechos Humanos, 2012, 45 orr.
- PHITTY GOMEZ, Josephine: La Inmigración Irregular (a través de las pateras y cayucos), *Universidad de La Laguna*, 2016, 44. orr.
- REGI, Jordi: Las políticas de migración y asilo en la Unión Europea y sus problemas de aplicación en los Estados miembros, 2020
- TRIGUERO MARTÍNEZ, Luis Ángel: El arraigo y los modelos actuales jurídico-políticos de inmigración y extranjería, *Revistas COMILLAS*, 2014, 433-458. orr.

#### **e) Web orrialdeak**

- División y Gestión de Inmigración de Fronteras de la OIM:  
<https://www.iom.int/sites/g/files/tmzbdl486/files/documents/regularization-es.pdf>
- OIM. “Términos Fundamentales sobre Migración”:  
<https://www.iom.int/es/terminos-fundamentales-sobre-migracion>
- PORTAL DE DATOS SOBRE MIGRACIÓN. “Migración Irregular”:  
<https://www.migrationdataportal.org/es/themes/migracion-irregular>
- MIGRAR.ORG. “Derechos de las personas en situación irregular”:  
<https://www.fundaciosergi.org/wp-content/uploads/2010/04/dretsdelespersonesensituacionirregular.pdf>
- NBE: “Pacto Mundial para una Migración Segura, Ordenada y Regular (GCM)”:



<https://www.ohchr.org/es/migration/global-compact-safe-orderly-and-regular-migration-gcm>

- SECRETARIA DE ESTADO DE MIGRACIONES. “Autorización residencia temporal por circunstancias excepcionales. Arraigo laboral”:

<https://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/informacionprocedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja035/index.html>

- SECRETARIA DE ESTADO DE MIGRACIONES. “Autorización residencia temporal por circunstancias excepcionales. Arraigo familiar”:

<https://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/informacionprocedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja037/index.html>

- SECRETARIA DE ESTADO DE MIGRACIONES. “Autorización residencia temporal por circunstancias excepcionales. Arraigo social”:

<https://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/informacionprocedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja036/index.html>

- SECRETARIA DE ESTADO DE MIGRACIONES. “Autorización residencia temporal por circunstancias excepcionales”:

<https://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/informacionprocedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/Autorizresiexcep.html>

- HANDBOOK GERMANY. “Tolerated Stay (“Duldung”)”:

<https://handbookgermany.de/en/rights-laws/asylum/duldung.html>

- THE NEW YORK TIMES. “Este es el plan B para la reforma migratoria”:

<https://www.nytimes.com/es/2021/02/05/espanol/opinion/reforma-migratoria-biden.html?action=click&module=RelatedLinks&pgtype=Article>

- SWI. “Ecuador lanza un nuevo proceso de regularización migratoria de venezolanos”:

[https://www.swissinfo.ch/spa/ecuador-migraci%C3%B3n\\_ecuador-lanza-un-nuevo-proceso-de-regularizaci%C3%B3n-migratoria-de-venezolanos/47648082](https://www.swissinfo.ch/spa/ecuador-migraci%C3%B3n_ecuador-lanza-un-nuevo-proceso-de-regularizaci%C3%B3n-migratoria-de-venezolanos/47648082)

- ELPAIS. “El Gobierno sólo ha legalizado a 3.000 familiares de inmigrantes en España”:

[https://elpais.com/diario/1992/03/01/espana/699404408\\_850215.html](https://elpais.com/diario/1992/03/01/espana/699404408_850215.html)

- ESENCIALES. “500 mil firmas para 500 mil personas esenciales”:

<https://esenciales.info/>

- MNE: Informe Sobre las Migraciones en el Mundo 2018, 404. orr.

[https://publications.iom.int/system/files/pdf/wmr\\_2018\\_sp.pdf](https://publications.iom.int/system/files/pdf/wmr_2018_sp.pdf)

- PARLIAMENTARY ASSEMBLY: Regularisation programmes for irregular migrants, 2007, 31 orr.

<https://www.unhcr.org/4b9fac519.pdf>

#### **f) Eranskina**

- GONZÁLEZ-PÁRAMO, Ana, GALLEGO, Sergio, RODÉS, Lucía: Historia de las Regularizaciones del mundo, *porcausa.org*, 2021

<https://docs.google.com/spreadsheets/d/1zSAB41pJu79LkvK6jQMLG1nU1tYQ3xXrmTPK9Aj6zaI/edit#gid=1627837056>